ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2008ko azaroaren 17a > Astelehena > VI. urtea > 211. zenbakia > euro 1

www.goiena.net

"Guztion elkarlana ezinbestekoa da hizkuntza gutxitua aurrera ateratzeko"



**Iñaki Martinez de Luna**
Soziologoa > 09

**G2a** **Danbaka: emanaldi ederra Elgetan** > 23

**DEBAGOIENA**
**Hilaren 30era arte luzatu dute gripearen kontrako kanpaina** > 04

**BERGARA**
**Gainbeheran zihoan bertso eskola, indarberrituta** > 09

**KULTURA**
**Sharon Stonerrek lagunartean aurkeztu du disko berria** > 27

**EKONOMIA** > KRISIA, GUREAN

# Arcelor Mittal, Tesa, Leniz, Ceur eta Lekber, krisiaren eraginpean

**ARCELOR** Produkzioaren %40ko beherakadaren ondorioz, kontratua eten die 500 langileri

**ESKORIATZA** Tesan 113 laguni eragingo die enplegu erregulaziorako espedienteak

**OÑATI** Ceur enpresaren etorkizuna beltza da; enpresa lege konkursalean dago > 05

**ARETXABALETA** > HIRIGINTZA

## Etxe babestuak zozketara

Ehun etxe babestu zozketatuko dituzte eguenean, 170 lagunen artean > 13

## Su ta Garreko beteranoak, ibarreko zaleekin bat

Taldearen sorreraren 20. urteurrena ospatzen dihardu Su ta Gar taldeak eta zapatuan emanaldia egin zuten Bergarako Jam aretoan. Hara hurbildutako zaleen gozamenerako, euren ibilbideko kantarik ezagunenak jo zituzten zapatuko emanaldian. Gitarra elektrikoa, akustikoa edota pianoa tartekatu zituzten Aitor Gorosabelek eta konpainiak. Leporaino bete ez arren, sarrera ona izan zen Bergarako Jam aretoan. Festaren bukaeran eta jaia borobiltzeko, *Haika mutil, Hator hator* eta *Zure atzetik* kanta ezagunak etorri ziren. > 27




**BETERANOAK** Euskal heavyko talde ikurretako bat bilakatu da Su ta Gar urte hauetan guztietan. Irudian, zapatuko, Jameko emanaldian. JOSETXO ARANTZABAL

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Elkarrizketa** > 06
**Iritzia** > 07-08
**Herriak** > 09-14
**Kirola** > 15-22
**Kultura** > 23-27
**Sailkatuak** > 28
**Irrati-Telebista eta Hitzordua** > 29
**Berri-zakua** > 30-31
**Azkena** > 32

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

## Aloñak irabazi eta UDAk eta Mondrak berdindu etxean

Aloña Mendi izan da aste bukaerako jardunaldian irabazle atera den ibarreko talde bakarra. Aloñak 2-0 irabazi zion Hondarribiari atzo, Azkoagainen. UDAk, berriz, etxean kanpoan baino zailtasun gehiago izaten jarraitzen du eta atzo berdinketarekin konformatu behar izan ziren Igor Gordobilen mutilak. Gaitzerdi, lehen zatian 0-2 galtzen ari zirelako etxekoak. Mondrak ere puntu bakarra eskuratu zuen zapatuan Mojategin, Ondarroako Aurreraren aurka. Lehen zatiko banakako emaitzarekin bukatu zen partidua. UDA eta Aloña berdindurik daude orain sailkapeneko erdialdean, hamabosna punturekin. Mondrak 12 puntu ditu.

Iritsi dira azaroko opariak! Badago zuretzat?

Zoaz 5. orrialdera







Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
ECOEMBES
NIREKIN BATERA HITZEMAN:
HORIRA EZ BEIRARIK EZ KARTOIRIK
EDUKIONTZI HORIA PLASTIKO, LATA ETA BRIKENTZAT DA SOILIK.
Zure hondakinak ongi bereizten dituzula eta dagokien edukiontzietara botatzen dituzula ziurta zaitez.
Bestela, birziklatze prozesua hautsiko duzu. Ingurugiroaz ardura zaitez. Etorkizunaz ardura zaitez.
ondo birziklatzen ez baduzu,
denon konpromisoa hautsiko duzu
AÑANAKO KOADRILA
CUADRILLA DE AÑANA
CUADRILLA DE LAGUARDIA
RIOJA ALAVESA
GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO
KUADRILLA
CUADRILLA DE CAMPEZO-
MONTAÑA ALAVESA
KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEKO
aguraingo
eskualdea
cuadrilla de
salvatierra
AYUNTAMIENTO DE
ARRAZUA-UBARRUNDIA
ARRAZUA-UBARRUNDIA´´ko
UDALA
CONSORCIO ESTRIBACIONES
DEL
GORBEA
GORBEAKO INGURUEN
PARTZUERGOA

**DEBAGOIENA** > PILOTA

# Pilota, ibarretik kanpo

**BERGARA** Aspe Eibarrera bueltatu zenetik, Pazkoetakoa izan da egon den jaialdi bakarra

**ARRASATE** Ibarreko beste zenbait herritan bezala, jaietan bakarrik izaten dira partiduak Uarkapen

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Zapatu arratsaldea, Bergara. Neska-mutiko batzuk Fraiskozurin jolasean, nagusi batzuk paseoan eta jende gutxi inguruko tabernatan . Zerikusirik ez orain dela urte batzuetako irudiarekin, Bergarako Udal Pilotalekua profesional mailako partiduak hartzen zituen sasoiekin. Kafeak, kopak eta *puruak* barra-barra zerbitzatzen zituzten orduan tabernariek, partidu handien atarian. Zapatuan Iruñean jokatu zen Olaizola eta Barriolaren artekoa. Goi mailako pilotak bazterrean utzi du Debagoiena. Arrasateko Uarkape pilotalekuak ere oso gutxitan jasotzen ditu lehen mailako pilotariak. Azken jaialdia ekainaren 22an egin zuten Arrasaten. Santamasetakoa izaten da urteko beste hitzordu garrantzitsua Arrasateko zaleendako. Hain zuzen ere, herrietako jaietan bakarrik ekartzen dituzte profesionalak gaur, Oñatira, Arrasatera edo Bergarara.

**FRONTIS ENPRESAREN ESKAINTZA**

Bergaran, esan bezala, urrezko garaia atzean geratu da, profesionalen partiduei dagokienean. Eibarko Astelena pilotalekua itxita egon zen garaian, 2005etik 2007ko udara bitartean, Aspe pilota enpresak eta Udalak hitzarmena sinatu zuten Bergaran hainbat jaialdi antolatzeko (jaialdi bakoitzeko 1.200 euro ordaintzen zituen Udalak). Aspek Astelena berreskuratu zuenean, agur. Hitz politak besterik ez. Aspek Bergarak eskainitako *zerbitzua* gogoan izango zuela esan zuen, baina errealitatea bestelakoa da.

Aspe, Asegarce eta Frontis pilota enpresekin harremanetan jarri zen Bergarako Udala urte hasieran eta Frontis izan da erantzuna eman duen bakarra. Carmelo Ariznabarretak eta Karlos Armendaritzek zuzentzen duten enpresaren eskaera zera izan zen: Udalak 3.000 euro ordaindu beharko lituzke jaialdi bakoitzeko eta gastuak babesleekin eta sarrera salmentarekin beteko ziren. Hamar babesle topatu beharko lituzke Udalak eta bakoitzak 300 euro ordaindu (trukean, besteak beste, 30 sarrera jasoko zuten); jaialdirako sarrerak 10 eurotan salduko zituzten.

**DINAMIKA GALDU**

Azken aldiz irailean egon ziren Frontisekoak eta Bergarako Udaleko ordezkariak harremanetan baina oraingoz ez da akordiorik gauzatu. Martin Etxeberria Bergarako kirol zinegotziaren arabera, gaur egun zaila da pilota programazioan lekua topatzea. Telebistek agintzen dute eta asteburua *hartuta* dago nolabait: Aspek programatzen du ostiral gauekoa, Asegarcek zapatukoa eta Aspek domekakoa, Astelenakoa. "Argi dago Bergaran pilotalekura joateko dinamika galduta dagoela; Pazkoetako jaialdira ere oso jende gutxi joan zen.Baina Frontisekoek dinamika hori berreskuratzeko modua badagoela esaten dute. Egubakoitza izango zen beharbada aukerarik onena, baina momentuz gaia geldirik dago" dio Etxeberriak.

Ibarrean pilota harrobia badago eta Bergaran, esaterako, astero antolatzen dituzte partiduak Udal Pilotalekuan. Pilota profesionala ikusi nahi izanez gero, ibarretik kanpora joan behar dute zaleek. Edo bestela, telebistarekin konformatu. Labrit, Astelena edo Beotibar pilotalekuek atzean utzi dute Bergarako Udal Pilotalekua, garai bateko erreferentea.

**Frontis enpresa izan da Bergarako Udalari eskaintza egin dion bakarra**

**Azken aldiz irailean egon ziren Frontisekoak eta Udaleko ordezkariak harremanetan**



Titin III.a aurtengo San Migeletako jaialdian, Oñatin. Atzerago, Gonzalez. JOSETXO ARANTZABAL

## 60 urte beteko dira Bergaran lehen finala jokatu zenetik

Bergarako Udal Pilotalekua 1885ekoa da eta urte hauetan guztietan partidu handien lekuko izan da Bergarako frontoia: Atano III.a eta Miguel Gallastegi aurrez aurre izan ziren 1958ko finalean, azaroaren 28an. Gallastegi eibartarrak irabazi zuen, 22-6. Atano III. handiak 44 urte zituen orduan. Haren irudia dago oraindik pilotalekuko errebotean; irudi originala Simon Arrieta margolariarena zen hasieran, baina berritze lanekin (1966ko abenduaren 17an inauguratutakoak) galdu egin zen.

Toribio Jauregi argazkilaria ere frontoiaren ibilbidearen lekuko izan zen. 2005eko azaroaren 11tik abenduaren 3ra *Toribio Jauregi, pilotazale bat kameraren atzean* erakusketa ikusgai izan zen Aroztegi aretoan. Oraintsu, Bixente Jauregik aitaren fondoak utzi dizkio Udalari. Pilotak berebiziko tokia du material gutzi horretan.



Gallastegi eta Atano III.a, 1958ko finala ondoren. TORIBIO JAUREGI



Retegi I.a eta Atano III.a Bergaran, 1968an. TORIBIO JAUREGI


Bergarako osasun zentroan hilaren 30era arte jarriko dituzte gripearen aurkako txertoak. GOIENKARIA

**OSASUNA**> TXERTAKETA KANPAINA

# Hilaren 30era arte luzatu dute gripearen kontrako kanpaina

Debagoieneko osasun zentroetan txerto gehiago jarriko dituzte; interesatuek mendiku kontsultatik pasa beharko dute

**MIREIA BIKUÑA**> BERGARA
Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak *Gripea heltzear da. Jarri txertoa* kanpaina luzatzea erabaki du. Hain justu ere, hilaren 30era arte jarriko dituzte txertoak Euskal Herriko osasun zentro guztietan; tartean, Debagoieneko anbulatorioetan.

**TXANDA HARTU BEHAR DUTE**
Urtero martxan jartzen duten kanpainan, 65 urtetik gorako pertsonei, ospitaletako langileei eta gaixotasun kronikoak dituztenei –diabetikoei eta bihotzeko gaitzen bat dutenei– jartzen diete gripearen aurkako txertoa. Aurrez mediku kontsultatik pasa beharko dute ordua hartzeko.

Kanpainaren hasieran 11.300 txerto banatu zituzten Debagoieneko osasun zentroetan; baina oraindik ez dituzte guztiak jarri, gutxi batzuk geratzen zaizkie. Hauek dira osasun zentroetan eman dizkiguten datuak: Oñatin 1.300 txerto; Bergaran 2.957; Antzuolan 300; Elgetan 239; Aretxabaletan 1.074 eta Arrasaten 4.215. Eskoriatzako osasun zentroan ez digute daturik eman. Bestalde, Aramaion 255 txerto jarri dituzte oraingoz.

DATUA

**10.340**

**TXERTO**

Horiek dira gripearen aurkako txertaketa kanpainaren barruan Debagoieneko herrietako (Eskoriatzako datuak sartu barik) eta Aramaioko osasun zentroetan jarritako bakuna kopurua.

**Joxe Agirre** > 'Hemen' aldizkariko zuzendaria

# "Gogoeta egin gura duten guztiengana heldu gura dugu"

**M.B.** > ARANTZAZU
**'Hemen' aldizkariak bost urte bete ditu. Horren harira, ospakizun jaia egin zuten eguenean Donostiako Koldo Mitxelenan. Aldizkariaren zuzendari Joxe Arregi frantziskotarrarekin egin dugu berba aldizkariaz eta ospakizunaz.**


Joxe Agirre.

**Bosgarren urteurreneko jaia egin zenuten eguenean.**
Erlijioaren gaineko mahai ingurua egin genuen. Erlijioak egun duen egoeraz jardun ginen. Bestalde, bertso saio bikaina eskaini ziguten Andoni Egañak eta Jon Sarasuak.

**Ze ibilbide izan du *Hemen* aldizkariak bost urteotan?**
Behetik gorako eboluzioa izan du, hutsetik hasi ginela kontuan hartuta. Urte hauetan aldizkariaren lan ildoak finkatu ditugu, eta besteak beste, aniztasunaren aldeko apustua egin dugu. Teologoak ez diren pertsonei toki zabala egin diegu aldizkarian. Bestalde, ikuspegi eta sentimendu ezberdinak dituzten pertsonen iritziak sartu ditugu. Momentuz, gustura gaude.

**Nolakoa da aldizkaria?**
*Arantzazu* aldizkariaren tamaina du, baina orri kopuru handiagoa du; hain justu ere, 130 orri ditu bakoitzak, eta hiru hilero kaleratzen dugu.

Zenbaki bakoitza gai bati eskaintzen diogu, eta lau ataletan banatzen dugu: *Gogoeta*, *Liburua*, *Jakingarria* eta *Lekukoak* sailak ditugu. Azken horretan, aldizkarian landu dugun gaiaren inguruan, pentsaera ezberdinak dituzten sei pertsonen (hiru emakume eta hiru gizon) iritziak jasotzen ditugu.

Aldizkaria harpidetza bidez banatzen dugu. Une honetan 420 harpidedun ditugu, baina pertsona gehiagorengana heldu gaitezkeela uste dugu.

**Nortzuei zuzendutako aldizkaria da?**
Gogoeta egiteko aldizkaria den heinean, gogoeta egin gura duten guztiengana heldu gurako genuke; besteak beste, erlijio gaiei buruz edo eguneroko gaiei buruz gogoeta egin gura dutengana. Era berean, fededun izan eta zalantzak dituztenengana.

**Zaila da erlijioaren gaineko aldizkari bat aurrera ateratzea?**
Askok esaten digute meritua dugula horrelako aldizkari bat egitean. Ez da erraza erlijioari buruzko aldizkari bat egitea, baina garbi daukagu, gureak ez duela erlijioari buruzko gogoeta tradizionala egiten. Ikuspegi berriak zabaldu gura ditugu.

Horregatik guztiagatik, oso zaila egiten zaigu identitate zehatz bat izatea.



**EKONOMIA KRISIA** > DEBAGOIENEKO ENPRESEN DIAGNOSTIKOA

# Ibarreko hainbat enpresatan larri dabiltza krisiaren eraginez

Azpikontratatuta zituen 500 langileri kontratua eten die Arcelorrek. Produkzioa %40 jaitsi da azken hiruhilekoan

**A.BARRUSO/G.ARANA** > BERGARA

Munduko altzairu ekoizle nagusia da Arcelor Mittal, baina ekonomia krisiak gogor astindu du azken hilabeteotan. Zehazki, Gipuzkoako lantegietan, eraikuntza sektorerako produktu ugari egiten dituzte eta, beraz, egoera latza ari dira igarotzen Olaberria, Zumarraga eta Bergarako lantokietan. Produkzioak %40 egin du behera azken hiruhilekoan eta, horren aurrean, neurriak hartu ditu zuzendaritzak: kontratua eten die azpikontratatuta eta behin behineko kontratuarekin zituen 500 langileri. Neurri horiek salatzeko, LAB sindikatuak kontzentrazioa deitu du gaurko, 14:00etan, Arcelor kanpoan.

**TESA, LENIZ ETA CEUR**

Eskoriatzako Tesa enpresan, enplegu-erregulaziorako espedientea aurkeztu zuten eguneean. Lantokiak aktiboan dituen 123 langileetatik 113rengan izango du eragina, baina kaleratzerik ez da aurreikusten; langileen kontratuak behin-behineko etengo dituzte. Orain, 15 egun dituzte enpresak planteatutakoa aztertzeko, enplegu-erregulaziorako espedientea Lan Ordezkaritzan aurkeztu aurretik. Hala jakinarazi du ELA sindikatuak.

Enplegu-erregulaziorako espedientea aurkeztu zuen duela hilabete inguru Eskoriatzako beste enpresa batek ere, Fundiciones Lenizek. Gauzak asko aldatu ezean, ordea, itxi egingo da laster, ELAtik azaldu dutenez: "Egoerak okerrera egin du eta ateak ixtea eta kontratu guztiak bertan behera uztea ari da aztertzen enpresa". Sindikatuko iturrien arabera, gaur bilduko dira enpresako arduradunekin, baldin eta enpresa ixten bada, langileen baldintzak zeintzuk izango diren adosteko.

Oñatiko Ceur enpresaren etorkizuna ere beltza da, sindikatuen esanetan. ELAtik azaldutakoaren arabera, enpresa lege konkursalean dago eta langile nahiz sindikatuek administrazioaren eta enpresaren espedientearen zain daude.

**KEZKA ELGETAN**

Elgetan, bestalde, kezka piztu da Lekber enpresak Uruburun eraiki berri dituen 60 etxebizitzen jabeen artean. Eibarren egoitza duen enpresak ordainketa etendura deklaratu du eta amaitu gabeko lanekin zer gertatutako den jakin gura dute kaltetuek.

DATUA

**113**

**LANGILERENGAN ERAGINA**

Eskoriatzako Tesan diharduten 123 langileetatik 113rengan izango du eragina enpresak aurkeztu duen enplegu-erregulaziorako espedienteak. Langile horien kontratuak eten egingo dituzte epe baterako.



J.A

## 15 artisauk euren lanak erakutsi eta saldu dituzte Leintz Gatzagan

San Milixan eguna ospatu zuten atzo Leintz Gatzagan eta, ohiturari jarraituz, artisauen erakusleiho bihurtu zen herriko pilotalekua. Jostailuak, tapizak, zetazko jantziak... aurkitu zitezkeen postuetan. Jendeak ikusi, erosi eta artisau-lanen prozesua bertatik bertara ezagutu zuen; beira puztuaren erakustaldiak, esaterako, askoren begirada erakarri zuen. Gaztaina erreek eta taloek ere arrakasta izan zuten. Eguraldi eskasak ez zuen jendea atzeratu; aparkatutako autoak Dorletaraino iristen ziren ia.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Azaroko irabazleak

PARTE HARTZEKO | SMS 5533
harpidetza@goiena.com
Tel.: 943 08 10 50

Sariak irabazteko HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
10 euro abendura arte

ZU IZAN ZARA IRABAZLEA, ZORIONAK!

SARRERAK
JUAN CARLOS PEREZ-en KONTZERTURAKO SARRERAK
KAFE ANTZOKIA espaloia ELGETA
Irabazlea:
Mertxe Kalparsoro Esteibar (Aramaio)

SARRERAK
BRUESA GBC-ViveMenorca
Irabazlea:Juan Ramon Balenziaga (Arrasate)
BRUESA GBC-Pamesa
Irabazlea: Miren Bengoa Leibar (Arrasate)

KAMERA
EROSKI zurekin

Irabazlea:
Amaia Bikuña Mtnez. de Zuazo (Oñati)

KAMISETA
DANBAKA
DANBAKAKO KAMISETA 1

Irabazlea:
Mertxe Odriozola Igartua (Oñati)

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
"LA PERLA" TALASOTERAPIARAKO BONOA (10 SARRERA )
Zozketan sartuko dira: 08-10-06tik 08-12-10ra jasotakoak
La Perla CENTRO TALASO - SPORT


SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

Iñaki Martinez de Luna soziologian doktorea eta EHUko irakaslea da. Joan den eguenean, Arrasaten izan zen, *Hizkuntza gutxituak mundu globalizatuan. Eta euskara zer?* izeneko hitzaldia eskaintzen. Arrasate Euskaldun Dezagun euskara elkartearen 25. urteurrena ospatzeko hitzaldi zikloaren barruan dago Martinez de Lunaren berbaldia.

**Iñaki Martinez de Luna** > Soziologian doktorea eta EHUko irakaslea

# "Guztion elkarlana ezinbestekoa da hizkuntza gutxitua aurrera ateratzeko"

MIRIAN BITERI > ARRASATE

**Iñaki Martinez de Luna aditu gasteiztarrak azken urteotan euskarak izandako bilakaera eta gaur egungo egoeraz hitz egin zuen eguneneko hitzaldian. Hainbat gogoeta ere helarazi zien Kulturaten izan zirenei.**

**Hizkuntza gutxituen egoera aztertu duzu Kulturaten...**

Batetik, mundu globalizatuak hizkuntza gutxiei ezartzen dizkion baldintzak hizpide izan ditut. Hori abiapuntutzat gartuta, bertako egoerari erreparatu diot. Kontuan hartu behar da, horren harira, Euskal Herrian askotariko egoerak daudela. Azkenik, gogoetak eta ondorioak helarazi dizkiet hitzaldian batutakoei.

**Zer toki dute hizkuntza gutxituek gaur egungo mundu globalizatuan?**

Gure kasuan, euskararen komunitateak bere hizkuntza suspertzeko ahalegin guztiak eginez gero, euskarak posible du aurrera egitea. Baina, horretarako hizkuntza horrekin dugun kezka adieraztea ezinbestekoa da. Komunitateak zehaztu behar du hizkuntza horri zer leku eman nahi dion. Hau da, arlo guztietarako eta funtzio sozial jakin batzuetarako bakarrik balio duen. Komunitate bakoitzak erabakitzen du eguneroko jardunean; hor dago gakoa. Ondoren inplikatuta dauden eragileen arteko elkarlanarendako baldintza egokiak sortu behar dira.

Bakoitzak bere eginkizunak dauzka, eragile mota bakoitzaren araberakoak. Komunitate bezala ditugun baliabideak mugatuak dira eta hizkuntza gutxitua aurrera ateratzeak ahalegin handia eskatzen du. Hortaz, guztion arteko elkarlana ezinbestekoa da; batetik, baliabideak modu eraginkorrean erabiltzeko eta probetxu handiena ateratzeko; eta bestetik, dinamika berriak sortzeko.

**Euskararen erabilpena neurtzeaz arduratzen zara. Zein da gaur egungo egoera eta zein izan da erabilpenaren bilakaera azken urteotan?**

Bilakaera ezberdina izan da tokiaren arabera. Alde hori egotea ez da kasualitatea. Erabilpena lekuan lekuko politiken araberakoa da. Euskal Autonomi Erkidegoko komunitatean bilakaera positiboa izan da. Emankorra eta azkarra izan da bereziki Gipuzkoan, baina baita Bizkaian eta Araban ere.




Iñaki Martinez de Luna. GOIENKARIA

HIZKUNTZA

**"Komunitateak zehaztu behar du hizkuntza horri zer leku eman behar dion"**

BILAKAERA

**"Bilakaera ezberdina izan da tokiaren arabera. Aldea ez da kasualitatea"**

ARRASATE

**"Arrasaten erakutsi dute nahi izanez gero, posible dela egoera hobeagoa lortzea"**

Nafarroan, aldiz, egonkor dela esan genezake. Erabilpena beti berdin mantentzen da. Iparraldean, berriz, orain arte atzerakada eman dela esan genezake. Orain gazteen artean jaitsiera hori eten da. Horrek oraindik pisu handirikk ez badu ere, atzematen da aldaketa datorrela.

**Eta zelakoa da egoera Debagoienean?**

Interesgarria da eskualde honetan gertatzen dena. Batetik, Arrasate bezalako herria euskalduna dago. Hala ere, horretan dinamika oso indartsuak sortu dira hizkuntza berreskuratzeko. Horrek ekimenak ekarri ditu herrigintzan, lan edo komunikabideen munduan. Jende gutxik identifikatzen du gaur egun Arrasate egoera erdaldunarekin, nahiz eta erdaraz egiten dutenek pisu handia izan. Horrek erakusten du nahi izanez gero eta baldintza eskasak izanik ere, posiblea dela egoera hobeagoa lortzea.

**Eta zer diozu bailarako beste herrietaz?**

Debagoienean badaude beste kasu batzuk, nahiko diferenteak direnak. Oñati, esaterako, oso euskalduna da. Euskarak egunerokotasunean garrantzi handia dauka, biztanleriaren %80tik gora euskalduna izan da azken hamarkadetan. Baina, horretan ez dira dinamika indartsuak sortu hizkuntza suspertzeko.

Horrelako egoera pasiboak kezkatzekoak dira, euskara hizkuntza gutxitua izanda eta egungo egoera txukunda izanda ere, tentsioa mantendu behar da. Bestela, hizkuntza handiak gutxitua jango duelako.

**Arrasateko adibidea jarri duzu. Hizkuntzaren sustatze horretan AED berak zeresan handia du...**

Bai, hala da. AEDren papera inportantea izan da eta euskalgintzako eragileendako eredu batean bihurtu da. Jarrera hori txalogarria da.

**Kulturateko hitzaldian hainbat gako aipatu dituzu, tartean ezagutzaren eta berrikuntzaren gaineko zenbait gogoeta eginez. Nola uztartu daitezke biak?**

Hitzaldian zera azpimarratu nahi izan dut: gizarte batek jakin behar duela hizkuntza bat berreskuratzea oso konplexua dela. Kontuan izan behar dute hizkuntza jakitearekin bakarrik ez dugula hizkuntza horren etorkizuna bermatzen. Lana eta inplikazioa eskatzen du. Gizarte horretaz jabetu behar da, bestela ez delako dinamiketan inplikatuko.

Bestalde, ezagutza aipatzean mundu akademikoa horretan sartu behar da nahitaez. Orain arte mundu akademikoak ez dio jaramonik egin horri. Ezagutza soziolinguistikoa hutsaren parekoa da mundu akademikoan, baita ikerketa zientifikoan ere. Guzti horretan jauzi kualitatiboa eman behar da.

**Zeintzuk dira gainontzeko gakoak?**

Komunikazioa izango litzateke bata. Horrekin lortu behar dugu euskara hizpide izatea. Azkenik, gobernantza moduan ezagutzen dugun kontzeptua aipatuko nuke. Hor parametro berriak ireki behar dira elkarlanerako, orain arteko baldintzek ez dute-eta larregi lagundu horretarako.

## oharrak eta deialdiak

ARETXABALETA

**> Reflexoterapia ikastaroa antolatu dute**

Egun osoko reflexoterapia ikastaroa antolatu du Loramendi elkarteak zapaturako, hilak 22, udaletxe zaharrean. Izenematea zabalik dago hilaren 19a arte, 943 77 09 70 telefonoan. Bazkideek 10 euro ordaindu behar dute, eta gainerakoek, berriz, 15.

ARRASATE

**> Elikadura ikastaroa Ekin elkartearekin**

Elikadura eta sukaldaritza osasuntsuaren gaineko ikastaroa antolatu du Ekin Emakumeak elkarteak, azaroaren 20an hasita. Izenematea zabalik dago hilaren 18a arte euren egoitzan (Pablo Uranga 6); 943 79 83 70 / 651 70 79 38 telefonoetan; edo *ekin.emakumeak@telefonica.net* helbidean.

ARRASATE

**> Vietnam eta Kanputxearen gaineko hitzaldia**

Vietnam eta Kanputxean egin daitezkeen bidaien gainean berba egingo dute Eroski Bidaietako ordezkariek eguenean, hilak 20, Iamai kafetegian, 19:30ean.

ARRASATE

**> 1954an jaiotakoen kinto ospakizuna**

1954an jaiotakoek ospakizuna izango dute azaroaren 22an: meza eta poteoa 12:30ean eta bazkaria Hilarionen, 14:30ean. Izenematea Euskadiko Kutxako kontuan, 50 euro sartuta.

ESKORIATZA, ARRASATE, ARETXABALETA

**> Sobroneko abentura parkera irteera**

Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako gazteleku eta gazte txokoetako erabiltzaileek Sobroneko abentura parkera joateko aukera dute azaroaren 22an, zapatua. Izena emateko, jo gazteleku edo gazte txokoetako edozein hezitzailerengana. 10 euro da.

OÑATI

**> Arreta gabeziaren gaineko jardunaldiak**

Arreta gabezia familian tratatzearen gaineko jardunaldiak antolatu ditu Elkar Hezi ikastetxeak biharko, azaroak 18. LHko 3. zikloko eta DBHko gurasoendako da. Santa Marinako mediatekan, 18:30ean.

ARETXABALETA

**> 1974an jaiotakoen kinto afaria**

1974an jaiotakoek batera afaltzeko aukera dute azaroaren 22an, Arrasateko Erreka jatetxean. Izenematea, Urbaltz tabernan.

BERGARA

**> 'Euskaldun erdaldunaren metamorfosia'**

Xabi Payak *Euskaldun erdaldunaren metamorfosia* hitzaldia egingo du hilaren 20an, kultura etxean, 19:00etan.

ARRASATE

**> Egoera ekonomikoaren inguruko hitzaldia**

Gaur egungo egoera ekonomikoaren inguruko hitzaldia egingo du Antton Perez de Calleja ekonomialariak eguenean, hilak 20, Mankomunitateak Arrasaten duen egoitzan (Nafarroa etorbidea, 17), 17:30-19:30. Edozein tamaina edo sektoreko enpresei zuzenduta dago.

BERGARA

**> 1939an jaiotakoek bazkaria egingo dute**

1939an jaiotako bergararrek batera bazkaltzeko parada dute azaroaren 22an. Frontoian batuko dira 13:00etan, txikiteorako; eta 14:30ean bazkalduko dute Pertxan. Izenematea: 943 76 24 79 (Eulalia Elgarresta) edo 943 76 28 58 (Pello Garitano).

BERGARA

**> Domingo de Iralaren gaineko hitzaldia**

*Domingo de Irala, bergarar bat Mahomaren paradisuan* delako hitzaldia egingo du Migel Angel Elkoroberezibarrek etzi, eguaztena, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:30ean.

BERGARA

**> 1988an jaiotakoek kinto afaria egingo dute**

1988an jaiotakoek batera afaltzeko aukera dute abenduaren 6an Tartufo jatetxean. Izena emateko, sartu 30 euro Euskadiko Kutxan ireki duten kontuan, azaroaren 28a baino lehen. Hitzordua Pol-Polen egin dute, 19:00etan.

BERGARA

**> 1934an jaiotakoak bazkaltzera batuko dira**

1934an jaiotakoek batera bazkaltzeko aukera dute azaroaren 22an Zumelagan. 14:00etan batuko dira. Izenematea zabalik dago Zumelagan, 12 eurotan.

ARRASATE

**> Euskararen eta komunikazioaren gizartearen gainean berba egingo du Joxerra Gartziak**

AED elkarteak antolatuta, *Euskarak, gerorik bai?* zikloko bigarren hitzaldia egingo du Joxerra Gartziak: *Sehaskatik sarera. Euskararen atarramentuak Komunikazioaren Gizartean*. Eguenean, hilak 20, izango da Kulturaten, 19:00etan. Elkartea sortu zeneko 25. urteurreneko ospakizun egitarauaren barruan dago.

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

## etxeko leihotik



Inazio Arregi > zuzen@goiena.com

# Meabe, Aresti eta Atxaga

Tomas Meabe XX. mende hasierako durangar politikoak, EAJ-PNV alderdiaren inguruan ibili ondoren PSOErako bidea hartu zuen. Ohore bikoitz bat du. Herri honek dituen bi alberdi handienen sorreran egotea, eta bigarrena, lehenengo euskal "transfuga" ezaguna izatea.

Gabriel Arestik poema bat eskaini zion Meaberi. Gazteleraz: *Cierra los ojos muy suave,/Meabe,/pestaña contra pestaña:/Sólo es español quien sabe /Meabe, /las cuatro lenguas de España*. Honen arabera oso espainiar gutxi izan behar dira munduan. Nik neuk ere, euskara eta gaztelera baino ez ditut dominatzen. Erdi espainiar baino gehiago ezin izan nahita ere.

> "Poztekoa da ikustea nola baloratzen den kanpoan gure literatura"

Nire oroimenen kutxatik atera ditut aurreko bi pasarteak, Bernardo Atxagak hurrengo nobela Espainiar estatuko lau hizkuntzetan atera behar duela irakurri dudalako. Lehenengo euskaraz, eta gero beste hiruretan.

Poztekoa da ikustea nola baloratzen den kanpoan gure literatura. Daturik ez daukat, baino geroz eta gehiago dira beste hizkuntza batzuetara itzultzen diren liburuak. Horrek, unibertsalago bihurtzen gaitu, ez espainarrago Arestiren hitzetatik ondoriozta daitekeen bezala.

**> Bilbon.** Aurreko baten Bilbon taberna batean bazkaldu behar izan nuen. Ugazabari egunkari bat eskatu nion. Aukera handirik ez. *El Correo* o *Deia*? Nik *Deia* erantzun. Berak: Gora Euskadi! To!

**> Durango.** Sortzailea izatea geroz eta zailagoa da. Orain gizon ikus ezinaren saltsa sortu da. Itxuraz generoa ezin da jada ukitu eta erabili. Zer gertatuko zatekeen leloa emakume ikus ezina izan balitz?

## debagoiendarrak kanpoan

Emma Hidalgo > Antzuola

# "Haurrak gauzak ulertzera nola heltzen diren ikustea oso polita da"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**Haurrekin lotutako bizitza da Emma Hidalgorena (Antzuola, 1979). Magisteritza eta psikopedagogia ikasketak egin ditu eta Nafarroako zenbait ikastetxetan praktikak egin ostean, egun Etxarri-Aranatzeko San Donato ikastetxean dihardu lanean; kontratu iraunkorrarekin, gainera. Haurrekin lan egiteak estresa sortzen duela aitortu duen arren, txikitxoen ikasketa prozesua bertatik bertara jarraitzeak "sekulako gogobetetasuna" ematen diola jakinarazi digu.**

**Noiz eta zergatik utzi zenuen Antzuola?**

Orain dela lau urte etorri nintzen Segurara. Antzuolatik joatearen arrazoi nagusia hemen etxebizitza merke bat irten zitzaidala izan zen, *txollo* bat irten zitzaidan-eta. Bestalde, Etxarri-Aranatzetik gertuago dago Segura Antzuola baino. Horrek ere lagundu zidan erabakia hartzerako orduan. Hasieran nire jaioterria eta nire jendea uztea nahiko gogorra egin bazitzaidan ere, dagoeneko ohitu naiz hemen daroaten bizimodura.

**Kontaiguzu zer egiten duzun zure egun normal batean.**

Nire egun normalak estresagarriak izan ohi dira. Egunero joaten naiz Etxarri-Aranatzera; San Donato ikastetxean egiten dut lan. Ikastetxean bertan bazkaldu, eta arratsaldeko 17:15erako heltzen naiz Segurara.

Lanaz kanpoko denbora erlaxatzeko erabiltzen dut. Ibilaldi txiki bat egin, gimnasiora joan… eguneko estresa kendu, finean.



**Irakurketa gustuko**

Polizia-nobelak eta beldurrezko eleberriak irakurtzea oso gustuko du Emma Hidalgok. Gimnasiora ere joaten da.

**Handia al da, bada, haurrek sortzen duten estresa?**

Bai, nahiko nekagarria da. Ikasturtea nahiko lasai joan daiteke, baina azterketa garaiak-eta estresagarriak dira. Hala ere, haurrekin lan egiteak hainbat alde positibo ditu.

**Eta alde positibo horien artean zer nabarmenduko zenuke?**

Gehien gogobetetzen nauena euren ikasketa prozesua bertatik bertara jarraitzea da.

Nik 9 eta 10 urte bitarteko neska-mutilekin egiten dut lan. Haurrek garai honetan hainbat gauza ikasten dute. Oso polita da gauzak ulertzera nola heltzen diren ikustea. Niretzat hori da haurrekin lan egiteko garai egokiena; ez dira ez oso txikiak eta ezta oso handiak ere.

**Zer da irakasle lanetik gehien gustatzen zaizuna?**

Hainbat gauza aipa ditzaket, baina nire lanetik politena ikasketa prozesu horren lekuko naizela da. Ez dago haurrek bilakaera ikustea bezalakorik.

Bestalde, irakasle lana aldakorra da oso. Irakaskuntzan ez dago industriako lantoki batean nagusi den monotoniarik.

**Zergatik etortzen zara domekero Antzuolara? Hain da handia zure herrimina?**

Astero gurasoekin egotea gustuko dut. Bestalde, lagunekin kafe bat hartzeko falta ere somatzen dut; horretarako ere etortzen naiz, baina ez dut guztiekin egoteko aukerarik izaten. Koadrilekoekin hilabetean behin geratzen naiz; bazkari bat egiten dugu.

**kale inkesta**

# Euskadi ala Euskal Herriko selekzioa?Zer iritzi daukazu gai honen gainean?



**Idoia Ilarduia**
Bergara



**Jesus Ortiz**
Bergara



**Juan Atonio Priego**
Aretxabaleta



**Ibon Arrieta**
Bergara

Iruditzen zait euskaldunon kontra erabiltzeko aprobetxatu dutela eta politikarekin nahastu dela dena. Federazioak Gabonetako partidua antolatu eta hortik aurrera ezer gutxi egiten du selekzioaren alde.

Euskadi edo Euskal Herria terminoa erabili, niri berdin dit. Ez diot aparteko garrantzia ematen. Politikarekin nahastu da dena. Uste dut partidua Euskadiko Selekzioa izenarekin jokatuko dela. Agian ikusiko dut.

Niri ongi iruditzen zait jokalariek euren iritzia izatea eta kontuan hartu beharko lukete. Horregatik, negoziatu egin behar dute eta ez da zurruna izan behar. Nik uste dut partidua jokatuko dela azkenean.

Euskal Herria izenean jokatzea gustatuko litzaidake. Denok gara eta Euskal Herria. Hala ere, partidua Euskadiko selekzioa izenpean jokatuko dela uste dut. Jokalari batzuk kontzienteki sinatu dute; beste batzuk, ez.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 02

## goienkaria@goiena.com

ARRASATE
**> Mendebaldeko saihesbideko lanak aurrera doaz pixkanaka**
Lan horiei buruzko iritzia emateko deitu digu arrasatear batek: "Oraindik hasi besterik ez dira egin, baina martxan daude eta ez da gutxi. Azpiegitura hori eginda ikusteko desiratzen nago".

OÑATI
**> Galdera ugari egin zioten herritarrek alkateari Goitb-n**
Eguenean izan zen Lourdes Idoiaga Oñatiko alkatea Goiena magazinean eta herritarrek egindako galdera askori erantzun zien. Oñatiar batek saioa gustura ikusi zuela aitortu zien Goiena telebistako lankide batzuei biharamunean, zalantza asko argitzeko balio izan ziola.

## ZUZENKETA

Joan den astelehenean argitaratutako Behobia-Donostia probako sailkapenean akats bat zegoen.
Hauek izan genituen Debagoienko lehen emakumezkoak: Lorea Zeziaga arrasatearra izan zen lehena (1:30:15); Leire Mugarza oñatiarra, bigarrena (1:33:38); eta Oihana Perez arrasatearra, hirugarrena (1:34:31).

**usteak uste**

Goiatz Arana

# Korrika badator!

Aurkeztu dute datorren urteko Korrika. Martxoaren 26an abiatuko da Tuteratik eta apirilaren 5ean bukatuko da Gasteizen. Eta bitarte horretan, makina bat herritatik pasako da, baina ez guztietatik, noski. Debagoienari dagokionez, ez da pasako, esaterako, Elgetatik. Baina zer egingo diogu, bada! Inguruko beste herriren batetik igarotzen den egunean, hara hurbildu eta kito! Orain astebete makina bat jende joan zen Donostiara, korrika egitera espresuki. Euskaren alde egitea tokatzen denean, ez al gara temati jarriko gero! Ez naiz ni korrikalaria, ez alajaina, baina Korrikarekin egin izan dut eta egingo dut, baita 16.ean ere! Ez dakit zein egunetan, ezta zein herritan ere, baina behar adina izerdi botatzeko gertu nago.

**zorroztailea**



Jasone Mendizabal

# Fedebako nahiago

"Sistemaren defentsa fede kontutzat hartu du G-20ak. Krisi ekonomiari aurre egiteko errezeten kontsentsu argirik gabe amaitu zen Washintongo goi bilera. Adostutako neurriak merkatu askearekiko fede konpartituan, salerosketa libream eta erreguilazio eraginkorrean oinarritzea defenditu du G-20ak".

Gara > 2006-11-16




Finantza sistemaren krisiari aurre egiteko *merkatu askea*, *salerosketa librea* eta *erregulazio eraginkorra* aipatu ditu G-20ak konponbiderako bere sinismenen oinarri nagusitzat. Washingtongo batzarrean elkartutako agintari boteretsuenek, beraz, oinarri horietan fedea izatea da proposatzen digutena.

Herrialde aberatsenetako finantza munduan lurrikara txiki bat jasaten ari gara, bertako biztanleon ongizate maila kolokan jartzeko arriskua ekarri diguna. G-20aren proposamenek gure fedea mereziko badute, merkatu sistemaren baitan, horrenbeste politikari, enpresari eta banketxetako buruen ekinbideek azken urteotan merkatu librean egindakoak jarri beharko ditugu aztergai.

Estatu Batuen lidergoa mundu mailako merkatal sisteman ukaezina izan da azken hamarkadatan eta botere honen eredua argia izan da: liberalismo globala predikatzen du eta bere altzairua, nekazal produktuak eta abarrak kanpoko produktuetatik babesteko protekzionismo lokala praktikatzen du

> "Herrialde aberatsenetako finantza munduan lurrikara txiki bat jasaten ari gara"
>
> "Lau milioi kongotarren heriotza ekarri du hango gerrak"

Merkatu librean, herrialde guztiek beraien ondasunak salgai jartzeko askatasuna behar ei dute, baina aberatsenek ondasun horien jabe egiteko duten moduei errepararatzea ez dago soberan. Afrika etengabeko gerratan mantentzea eta hango ondasunen jabe eginda merkatu librean salerosteko aukerei eustea joko arauetan sartzen den estrategia beldurgarria da. Azken asteotan hedabideetan Kongoko gerratearen berri izaten ari gara; ez da ezer berria, antza. Segapotoen ekoizpenerako beharrezkoa den coltanaren % 80a herrialde honetan ei dago eta segapotoak erosteko merkatuak gora egin ahala kongotarren heriotza kopuruak gora egin du. Dagoeneko lau milioi kongotarren heriotza ekarri du gerrate honek. Zenbaitzuen interes ekonomikoen mesedetan ematen ari den haurren esplotazio errukigabea ere ezin burutik kendu. ONUk aspaldi salatu ditu egoera honen erantzuletzat jotzen dituen 100 enpresatik gora eta ez da ezer aldatu.

Horiek horrela, merkatu librean fedeari eustea baino fedebako izatea nahiago...

ASTELEHENEKO **Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Edu Mendibil **Erredakzioa** Maider Arregi, Goiatz Arana, Larraitz Zeberio **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**





**> ARRASATE**
Ospitalean 90 bat aparkaleku egokitzeko asmotan dabil Udala **> 10**





**> BERGARA**
Patataren inguruko feria zapatuan San Antonion, Gure Ametsaren eskutik **> 11**





**> OÑATI**
Zubillagako parkean egongo da ibarreko anbulantzia medikalizatua **> 12**


**BERGARA** > BERTSOLARITZA

# Gainbeheran zihoan helduen bertso eskola gorako bidean da berriz ere

**JARRAIKORTASUNA**
Asteroko hitzordura hutsik ez egiteko konpromisoa hartu dute taldekideek

**HEZKUNTZA ARAUTUA**
Bergara izan daiteke bertsolaritza ikastetxeetara eramaten hurrengoa



Bariku arratsaldero biltzen da dozena bat laguneko taldea Arrizuriaga jauregian. GOIATZ ARANA

**GOIATZ ARANA** > BERGARA

Bariku arratsaldeko zazpiak, Arrizuriaga jauregian. Anjel Mari Peñagarikanoren eta Jon Sarasuaren bertsoak entzuten eta kantatzen ari dira hamar bat lagun, mahaiaren bueltan eserita. Bergarako helduen bertso eskolako ikasleak dira; 14 bat dira orotara eta, aldiro, den-denak elkartzen ez badira ere, saiatzen dira asteroko hitzordura hutsik ez egiten. Horixe da, hain zuzen, aurtengo ikasturterako jarritako helburu nagusietako bat: "Helduen talde bat beti egon da, baina jarraikortasun barik. Hori aldatu egin nahi izan dugu eta ari gara lortzen", azaldu digu Iñaki Gurrutxaga irakasleak. Faktore ezberdinek eragin dute horretan, baina Gipuzkoako Bertsolari Elkarteak egindako apustua nabarmendu du berak. Horren bitartez, bertso eskolak koordinatzeko eta gabeziak dituztenak bultzatzeko ardura hezkuntza arautuan diharduten irakasleek dute orain. Bergara puntu estrategikotzat jo dute eta, lehendik zegoen egitura aprobetxatuz eta haize freskoa ekarrita, egindako ahalegina hasi da fruituak ematen: "Itxura polita hartzen diot orain arte ikusitakoari", esan digu.

**LEHENENGO KONTAKTUA**

Gipuzkoa osoan, bost mila ikasletik gora daude hezkuntza arautuan bertsolaritza lantzen. Debagoienari dagokionez, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Oñati eta Aramaio daude sartuta proiektu horretan, eta Bergara izan daiteke hurrengo jomugetako bat. Irakas-denboran jorratzen dute gaia; bertsoa bitarteko moduan erabiltzen dute, egun gabeziak dituen ahozko jarduerari eusteko. Oinarrizko ezaguera batzuk eman eta gero, bertsoak egiten jartzen dituzte eta hor gustura aritzen direnek bertso eskolarako bidea hartzen dute. Bergaran, urtetan egon da umeen taldea, iaz galdu egin zen eta aurten berriz osatu da. Funtsean, idatzizkotik ahozkorako jauzia ematen dute hor, jarioa lantzeko. Helduentzako bertso eskola da hurrengo urratsa, "bertsolaritza gustuko dutenen elkargunea", Iñaki Gurrutxagaren hitzetan.

**TXAPELKETAK**

Bergaran, txapelketetarako mailarik ba al dagoen galdetu diogu, baina garrantzia kendu nahi izan dio horri: "Benetako bertsolaria ez da lau urtetik behin txapelketetan esku hartzen duena, edozein egun eta tokitan bertsotan egiten duena baizik. Saio horietan, gainera, gehiago transmititzen da, hain perfektuak ez badira ere": Eta hori esanda, Gurrutxagak bere egin du "perfekzioan ez dago aurreratzerik, akatsean dago aurrerapena" dioen esaldia. Debagoieneko bertso eskolen arteko lazoak estutzeko, zer antolatu pentsatzen ari da orain: "Giro goxo hori gustatzen zait niri".

KONTUAN HARTZEKO

## Zein da bailarako beste herrietako egoera?

Oñati da momenturik gozoena bizi duen Debagoieneko herria: helduen bertso eskolan hiru talde ditu; umeenean, bi, eta hirugarren bat sortzeko bidean. Denera, 50 lagun inguru mugitzen ditu. Orain bi urte eman zen gorakada eta orduko zenbakiak mantendu egiten dira geroztik. Ez da txapelketetan nabarmendu den herri bat, baina bai bertsozalea. Aramaion, 15 bat lagun dabiltza bertso eskolan, haur eta gazte. Aretxabaletan, Loramendi Euskara Elkartea arduratzen da bertso eskolaz. Umeen taldea ez da berria herrian, baina bai helduena; iaz sortu zen eta, momentuz behintzat, jendea oso gustura dabil. Aretxabaletan modura, Arrasaten, 10-12 lagun dabiltza bertso eskolan eta, aurrera begira, badaude aukerak umeen talde gehiago osatzeko. Eskoriatzan, orain hiru urte inguru desagertu zen taldea eta berreskuratzeko ahaleginetan dabiltza orain. Leintz Gatzagan, Elgetan eta Antzuolan ez da egon eta ez dago bertso eskolarik; Elgetan helduentzako ikastaro bat izan zen duela 3-4 urte eta halako bat antolatu gura dute Antzuolan ikasturte honetan.

**APARKALEKUEN AUZIA** > OBRAK DEBAGOIENEKO OSPITALEAN

# Ospitalean 90 bat aparkaleku egokitzeko asmotan dabil Udala

Herritar asko kexatu dira ospitalean aparkatzeko lekurik ez dagoela. Udalak uste du aparkaleku berriek arazoa arinduko dutela

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Astebete edo bi aste barru hasiko da arintzen Debagoieneko ospitalean aparkatzeko dagoen arazoa . Izan ere, lehengo Gamei fabrikaren – egun Fagor Arrasaterena da– aparkalekuak erabiltzea nahi du Udalak. Aparkatzeko guneak 2500 metro koadro izango ditu, eta Udalak jakinarazi duenez, guztira "80 edo 90 bat aparkaleku" izango dira.

Azkenaldian hainbat arrasatear kexatu da ospitalea inguratzen duen zonaldearen egoera kaskarra dela-eta. Aparkatzeko arazoez gain, obrez josita dago eta herritar asko kexu da oinezkoek ere hainbat oztopo dituztelako.

**XEHETASUNAK LANTZEN**

Pasa den egubakoitzean bildu zen Udaleko obra eta zerbitzu saila. Oraindik ere xehetasunak lantzen dihardute, baina proiektua laster jarriko da martxan. Aparkalekuak ospitaleko langileentzat eta herritarrentzat zuzenduta daude, baina oraindik ez da banaketa zehaztu. Hori bai, bi guneak hesi batek banatuko ditu.

Asmoa da aparkalekuak jartzea ospitaleko obrak amaitu bitartean. Hau da, 2010era arte.



Aparkaleku berriak pabilioi urdinaren aurrean jarriko dituzte. JOKIN BEREZIARTUA


JOSETXO ARANTZABAL

## Gaztaina erreak Arrasateko plazan, hotzari eta euriari aurre egiteko

Egubakoitza gaztaina erreak jateko egun aproposa izan genuen. Hotzari eta euriari aurre egiteko ez zen aukera makala Arrasateko Herri Eskolak proposatutakoa. Arratsaldean gaztainak gertatzeari ekin zioten eta ume eta guraso pilo bat elkartu zen Arrasateko plazan, udaletxeko arkupetan. Gaztainak primeran zeudela esan zuten han bildutakoek. Tripa bete eta, bide batez, eskuak berotu. Ez dago gehiago eskatzerik...

**OBRAK** > ABAROA BERRIA

## Laster dira hastekoak Abaroa eta San Andres auzo alkatetzaren egoitza egiteko obrak

Egoitza egin bitartean oinezkoen eta autoen zirkulazioan eragina izango duen aldaketen berri eman du Udalak. Aurrekontua hiru milioi eta erdi euro inguru da

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Zaharren egoitza eta San Andres auzoko alkatetza bilduko dituen egoitza berria laster hasiko dira eraikitzen. Lanok egitea 2008ko apirilean onartu zuen Arrasateko Udalak eta irailean adjudikatu ziren.

Eraikin berria Araba Etorbidean jarriko dute, Etxaluze deritzon eremuan –ikus irudia–. Hau da, San Josepe kalea eta Deba ibaiaren artean dagoen lur eremua hartuko du eraikin berriak.

**ALDAKETAK OBREN ONDORIOZ**

Obretaz kexatzen denak bere horretan jarraituko du. Izan ere, egun egiten ari diren lanei beste bat gehituko zaie laster. Dagoeneko hasi dira obrei hasiera emateko prestaketekin. Hala, Deba ibaiaren kontra dagoen aparkalekuaren zati batean –oraingoz dozena bat aparkaleku dira– ezingo da aparkatu. Aparkaleku gutxiago, hortaz.

Oinezkoei dagokienez, bestetik, Etxaluze eta Eskatu eraikinaren artean, Araba etorbidea eta San Josepe kalea lotzen dituen espaloia itxita dago. Mozketa honen aurrean, Udalak Eskatu eta Bastar-Etxe artean dagoen espaloia erabiltzea aholkatu du.

**LANAK, HAMASEI HILABETEZ**

Udalak hamasei hilabeteko epea ezarri du egoitza berria gertu egon dadin. Urte eta lau hilabete hauetan, lanak direla-eta sortuko diren eragozpen eta zaratengatik barkamena eskatu nahi izan du Udalak aldez aurretik.

Abaroa eta San Andres auzo alkatetzaren proiektua aurrera eroaten ia hiru milioi eta erdi euro gastatuko dira. Zehazki esanda, 3.419.243 euro balioko du egoitza berria egiteak.


Egoitza berria ibai ondoko gune berrian eraikiko dute. JOKIN BEREZIARTUA

OMU KERAMIKAK
zeramika • bainuak
eraikuntzarako materiala
BILTEGIA/BULEGOAK: Meatzerreka 6 • Arrasate • 943 79 14 28 • Faxa.: 943 79 40 43
ERAKUSKETA: Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate • 943 79 07 20


**JAIAK** > GURE AMETSAREN ESKUTIK

# Patataren inguruko feria izango da zapatuan

## Elkarteen arteko sukaldaritza lehiaketa egongo da aurten ere; partaideek patatak errioxar erara prestatuko dituzte 11:30etik aurrera



Eguaztenean aurkeztu zuten patata azoka, Gure Ametsan. JASONE ZABALA

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Gure Ametsa elkarteak antolatuta, zapatuan, hilaren 22an, San Antonioko bigarren patata feria ospatuko da. Azoka 10:30ean zabalduko dute eta goiz osoan zehar hainbat ekitaldi izango dira. Esate baterako Javier Pascualena adituak 12 patata motaren gaineko azalpenak emango ditu eta artisau eta gastronomia produktuen postuak jarriko dituzte antolatzaileek, Udapa eta Natuber enpresen laguntzarekin, besteak beste. Patata izango da zalantzarik gabe egun horretako protagonista nagusia. Azokan 17 postu ipiniko dituzte hainbat produkturekin: gazta, mermelada, ogia, lekaleak eta kontserbak, barazkiak, fruitu lehorrak, artisautza eta txerri patea eta beste hainbat. Era berean elkarte gastronomikoen arteko sukaldaritza lehiaketa jokatuko da 11:30ean. Herriko hainbat elkartek jardungo dute lehian patatak errioxar erara prestatzen.

**PATATAK ETA HARAGI GISATUA**

Arabako Patataren Kofradiako Isidro Urzelai presidentearen eskutik patata dastatzea izango da Gure Ametsan 11:30ean eta 12:30ean, eta ondoren patata eta haragi gisatuarena, kalitatezko label produktuekin. Feriari bukaera emateko, sari banaketa ekitaldia izango da 13:30ean. Aurten baina, ez da egongo pasa den urtean egon zen tabernen arteko pintxo lehiaketa, "abenduaren 20an egin nahi dugun azokarekin batera antolatzeko asmoa dugu", adierazi digu azokako antolatzaile Jesus Jauregik.

**HIRIGINTZA** > KALEARI IZENA JARRI DIOTE

# Iruerreka izena izango du Mekolalde industriaguneak

## Hiru aukera zeuden mahai gainean: Narbaiza, Iruerreka eta Estaziño

**J.Z.** > BERGARA

Pasa den azaroaren 10ean egin zen ez ohiko osoko bilkuran beste gai batzuen artean, Mekolalde poligono industrialeko kalearen zati bati zein izen ipini erabaki zuten. Mahai gainean hainbat aukera zeuden, eta azkenean Iruerreka izena jartzea erabaki zuen udalbatzak, baina ez aho batez; izan ere, PSE-EEko bi zinegotziek aurkako botoa eman zuen. Iruerreka izena, Mekolaldeko zubi zaharra baino harutzagotik (43. arearen bukaeratik) Korostola baserrirainoko kaleak hartuko du.

**HIRU AUKERA**

Kale hori izendatzeko hiru aukerak, Narbaiza, Iruerreka eta Estaziño izenak izan ziren eta azken erabakia Iruerreka izan zen.

Bestalde, kalearen bigarren zatiari, hau da, Korostolatik Etxebarrietaazpikora arte doan kalea izendatzea ez dute oraindik aztertu; aurrerago erabakiko dute hori.


Mekolaldeko irudiko tartea deituko da IIruerreka. OIHANA ELORTZA

# Ehun urte egin ditu Malen Yabarrek


EDU MENDIBIL

Malen Yabarrek 100 urte egin zituen egubakoitzean, azaroaren 14an. Lizarran jaioa, urte eta erdi zuela Bergarara etorri zen bizitzera eta Lasagabasterren egin zuen lan 40 urte egin zituen arte. Pablo Berraondorekin ezkondu zen eta ilobekin eta Mizpirualde Egoitzako lagunekin ospatu zuen bere 100. urtebetetzea. Lorak, tarta eder bat eta bestelako opariak jaso zituen Malenek. Joan den urtetik dago Mizpirualden eta pozik jaso zituen lagun guztien zorionak egubakoitzean.

**LEHIAKETA** > UBERAKO SAN PAULOAK 2009

# Logotipo lehiaketa antolatu dute Uberako jaietarako

## Lehiaketako irabazleak zapia eta 100 euro eramango ditu sari moduan

**J.Z.** > BERGARA

Ubera auzoko jai batzordeak jaietako zapi bat ateratzea erabaki du 2009ko San Pauloetarako, eta horretarako logotipo lehiaketa antolatu du. Ondorengoak dira bertan parte hartzeko bete behar diren oinarriak: Uberan jaio edo bizitzea edo bertan jaiotakoen seme alaba eta biloba izatea; gai librea den arren, *San Pauloak 2009* idazkia izan behar du logotipoak eta kolore bakarra izan beharko du; A4 tamainakoa izango da; bakoitzak ezingo du lan bat baino gehiago aurkeztu. Logotipoa ondorengo helbidera bidali beharko da datorren abenduaren 7a baino lehen ondorengo helbidera: Logotipo Lehiaketa, Jaolatza Elkartea, Ubera. 20570 Bergara. Irabazleak 100 euro eta lepoko zapia jasoko ditu saritzat.

IparProject
www.iparproject.com
Etxebizitzen ekipamendu integrala Merkatuen lehen markak
Mota askotako estiloak Gremioen koordinazioa

Telleria 23, D5 pabilioia Labegaraieta Industrialdea BERGARA Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44

**UDALA** > LOURDES IDOIAGA ALKATEA GOIENA TELEBISTAN

# Zubillagan egongo da ibarreko anbulantzia medikalizatua

Medikua, erizaina eta gidaria egongo dira zerbitzua ematen eguneko 24 orduetan

Suhiltzaileen parkean jarriko dute, eta zerbitzua Debagoiena osoan emango du

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Oñatiko Udalak Eusko Jaurlaritzako osasun sailean egindako gestioek fruitua eman dutela, eta Gipuzkoako laugarren anbulantzia medikalizatua (beste hirurak Donostian, Elgoibarren eta Tolosan daude) Zubillagako suhiltzaileen egoitzan jarriko dutela esan zuen Lourdes Idoiaga alkateak GOITB-ko *Goiena Magazinea* saioan egindako elkarrizketan. "Oso pozik gaude, laugarren anbulantzia medikalizatua jartzerako orduan Udaletik egindako eskaera aintzat hartu dutelako. Albiste oso ona da Oñatirako eta ibarrerako, kontuan hartuta orain arte anbulantzia medikalizatua Elgoibarretik etortzen zela, eta hemendik aurrera Oñatin egongo dela". Suhiltzaileen parkean egokitu dute anbulantzia medikalizatuaren egoitza, eta mediku batek, erizain batek eta gidari batek eguneko 24 orduetan emango dute zerbitzua.

2009rako aurrekontuen inguruan ere egin zuen berba Oñatiko alkateak: "Zirriborroa gertu dugu eta oposizioko alderdiei eman diegu azter dezaten. 2009ko aurrekontuak oso konplikatuak izango dira, Foru Fondotik eta lanengatik kobratzen dugun zergetatik aurreikusitakoa baino gutxiago jasoko dugu-eta. Hortaz, sarrera gutxiago izango ditugunez, inbertsioak egin ahal izateko zorpetu egingo gara. Hurrengo urterako inbertsio handiak egitea aurreikusten dugu".

**AUZOAK BIZIBERRITZEA**

San Lorentzo eta Errekalde auzoetan berrikuntza lanak dira 2009. urtean egin asmo dituztenak. "Irisgarritasun planaren hirugaren fasea San Lorentzo auzoan egingo dugu, eta aurrekontuetako partida inportantea auzo horretan gastatuko dugu. Errekalde auzoko lanak ere laster hasiko ditugu. Badakigu beste auzo batzuetan ere gabeziak daudela, Roke Azkune auzoko argiteria esaterako, baina guztiak ezin ditugu hurrengo urtean egin. Zorionez auzoetan egin beharreko lanen inbentarioa eginda daukagu".



Zubillagako suhiltzaileen parkean egokitu dute anbulantzia medikalizatuaren egoitza. GOIENKARIA

**GAZTELEKUA ETA URRUTXU**

San Martin ermita ondoan egokitu duten gaztetxearen inguruan, Udalak eta gazte batzarreko kideek izan dituzten bileren inguruan egin zuen berba Idoiagak: "Irtenbide egokia topatzeko ahaleginean jarraitzen dugu, batzuetan elkar ulertuko dugula ematen ez duen arren. Oraingoz San Martinen daude, baina eraikin publiko batean daudenez, baldintza batzuk zehaztu gura ditugu eurekin".

Gaztetxearen inguruan bizi diren herritarren aldetik zarata mailaren eta garbitasun faltaren inguruko kexak jaso dituztela esan zuen Oñatiko alkateak GOITB-n.

Herriko kirol instalazioen gaineko galderak ere erantzun zituen alkateak. Alde batetik Azkoagaineko sarreretan egiten dabiltzan lanen inguruan esan zuen martxa onean doazela eta laster bukatuko dituztela.

Beste alde batetik, Urrutxuko kirol guneko lanak urtebete barru edo hasiko direla esan zuen Lourdes Idoiagak: "Urrutxuko zabortegia zigilatzeko Aldundiak egin beharreko tramitearen zain gaude, baina kirol guneko proiektua bukatuta dago, eta lanak hurrengo urtean hastea espero dugu".

Oraindik hasi ez dituzten ETEO berriko lanen inguruan ere egin zuen berba: "Partzela lehiaketara atera dugu, baina tramite asko bete behar ditugu. Mondragon Unibertsitatea da momentuz lurrak erosteko interesa agertu duen bakarra. Hasieran esan zuten lanak irailean hasiko zituztela, baina ziur ez dakit noiz sartuko dituzten makinak".

Babes ofizialeko etxeen inguruan herritarrek bidalitako galderei erantzun zien, eta garbi utzi zuen Ugarkalde eta San Martineko babes ofizialeko etxeak udaberrian zozketatuko dituztela: "Zozketa atzeratu egin da Etxebideko eskatzaileen errenta aitorpena eguneratu egin behar dutelako, baina zozketa udaberrian egingo dute, ziur gainera".

## Gaztelekuko sotoa zabaldu dute aste bukaeran

Haur eta gurasoendako txokoa prestatu dute gaztelekuko sotoan. "Neguko egun hotzetan babeslekua eman gura diegu plaza inguruko arkupetan egoten dira gurasoei eta neska-mutikoei", esan zuen alkateak. Koltxonetak, mahai-jokoak, jostailuak, telebista eta DVDa eta kafe makina jarri dituzte. Zapatuan ireki zuten.

## Eguneko zentroan bost plaza gehituko dituzte

Foru Aldundiaren oniritziarekin Eguneko zentroko plazak 20tik 25era igoko direla esan zuen alkateak: "Zerbitzu ona da, espezialdua, gaixoendako eta euren familiendako onuragarria dena. Geroz eta erabiltzaile gehiago ditugu. Bezero berriei behar bezalako arreta eta zerbitzua eman gura diegu".

> KONTZERTUA

### Oñatiar ospetsuen gaineko hitzaldia, eguaztenean

Udal Euskaltegiak 25 urte betetzen ditu, eta antolatu dituen ekintzen artean, Oñatiko historia gai hartuta hainbat hitzaldi izango dira. Lehena eguaztenean egingo du Jerardo Elortzak, 18:00etan euskaltegian bertan. Oñatik eman dituen herritar ospetsuen gainean egingo du berba; besteak beste, Mercado de Zuazola apezpikua, Mikel Aozaratza, Lope de Agirre, Elortza jenerala eta Jose de Azpiazu.

> DEIALDIA

### Musika eskolakoek kalejira egingo dute Santa Zezilia egunean

Eguenean, Santa Zezilia eguna ospatuko dute musikari guztiek. Euren zaindariaren omenez, Jose de Azpiazu musika eskolakoek kalejira egingo dute. Hain zuzen ere, plazan hasiko dute kalejira 17:15ean, eta kalerik kale ibiliko dira eskolan ikasitako doinuak erakusteko. Santa Zezilia eguna ondo bukatzeko, musika eskolako ikasle eta irakasleek, txokolate-jana egingo dute gaztelekuan.

> ZINEMA

### 'La banda nos visita' filma eskainiko dute zineklubean

Eran Kolirin zuzendariak idatzitako eta zuzendutako pelikula eskainiko dute zineklub taldekoen egunean, 20:00etan. Hain zuzen ere, *La banda nos visita* filma emango dute. Israeleko kontzertua ematera doan Egiptoko musika banda baten istorioa kontatzen du pelikulak. Sasson Gabai, Ronit Elkabetz eta Saleh Bakri dira protagonistak.

Hurrengo astean, Kim Ki-Duk korearraren *Time* filma eskainiko dute.

> DEIALDIA

### Laguntzailea behar dute Argentinako Elkartasun taldekoek

Argentinako Elkartasun taldekoek ordenagailuan datuak sartzen dakien laguntzailea behar dute. Hain justu ere, botiken kontrola egingo luke Excel programa erabiliz. Lan erreza da; hortaz, interesatuek Bidebarrietako lokalera jo dezakete, eguaztenetan eta eguenetan, 18:30etik 20:30era arte.

Gainera, urtarrilean bidaliko dute kontainerrerako material biltzen dihardute.

**ARETXABALETA** > HIRIGINTZA

# Erreka beste aldean egiteke dauden 100 etxe babestu zozketatuko dituzte eguenean

170 aretxabaletar inguru sartuko dira Arkupen, 12:00etan, egingo den zozketan

Babes ofizialeko etxebizitza bakoitzak, batez beste, 102.000 euro balioko du



Babes ofizialeko etxebizitzak zelaia eta basoa dauden eremuan egingo dira. MIRARI ALTUBE

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA
Datorren eguenean, azaroak 20, babes ofizialeko etxebizitzak zozketatuko dituzte. Arkupe kultura etxean egingo dute zozketa horren ekitaldia, eguerdian. Udaletxean jakinarazi dutenez, 170 aretxabaletarren izenak daude onartuta zozketarako.

Jaurlaritzako Etxebizitza sailburu Javier Madrazo ekitaldian izango dela baieztatu dute dagoeneko. Horren ondoan, Aretxabaletako alkate Inaxio Garro egongo da.

Deba errekaren beste aldean eraikiko dituzte babes ofizialeko etxe horiek; 100 dira guztira. Guzti horietatik batzuk ezinduendako izango dira.

**ZABALERA ETA PREZIOAK**
Etxebizitza guztiak bi bloketan egongo dira banatuta. Zabalera handiena duenak 70 metro koadro erabilgarri edukiko ditu eta txikienak, berriz, 53 metro koadro pasatxo. Etxe guztiek, gainera, garajea eta trastelekua izango dituzte. Garajeak 11,59 eta 17,90 metro koadro artekoak izango dira; trastelekuak 3,24 eta 6,19 metro koadro artekoak. Babes ofizialeko etxebizitza bakoitzak, batez bestez, 102.000 euro inguru balioko du. Esan bezala, eguenean izango da zozketa.

> ARETXABALETA

### Jaiki elkarteak dantza libre topaketak egingo ditu eguenean

Dantza libre topaketak antolatu ditu Jaiki elkarteak. Eskolak eguenean, azaroak 20, eta abenduaren 18an izango dira eta Isabel Alzola irakasleak eskainiko ditu. Saioak eguenetan egingo dira, 18.00etatik 20.30era bitartean, kuartel zaharreko dantza lokalean; bigarren solairuan.

Eskola bakoitza aparte ordainduko da; bakoitzak zortzi euro balioko du. Interesatuek 653 705 068 edo 943 53 43 96 telefono zenbakietara dei dezakete edo nahiago izanez gero, jaikielkartea@yahoo.es helbidera mezua bidaltzeko aukera dute.

> ARETXABALETA

### Eguenean 'Tener 13 años en el 36' dokumentala ikusgai

Eguenero bezala, ikus-entzunezkoa izango da aste honetan ere Arkupe kultura etxean. Espainiako gerra zibilaren gaineko dokumentala ikusi ahal izango dute hara joaten direnek.

Joaquin Galvez gipuzkoarrak garai hartan bizitakoa azaltzen da *Tener 13 años en el 36* izeneko dokumentalean. Galvez bera izango da eguenean azalpenak ematen.

Betiko moduan, 19:30ean hasiko da ikus-entzunezkoa. Arkupeko azaroko kultura egitarauaren barruan dago.

**ESKORIATZA**

## Zaharren egoitza gaur mintzagai Ibarraundin

**M.B.** > ESKORIATZA
Gaur, astelehena, zaharren egoitzaren gaineko mahaingurua egongo da Ibarraundi museoan, 19:00etan. Azken ekimena izango da, galdeketa egin aurretik.

Horretan, besteak beste, udal Gizarte Zerbitzuetako arduradun Beronika Solaguren eta Pedro Lasagabaster alkatea izango dira. Herritarrek dituzten zalantzak argitzen saiatuko dira.

**ETXEZ ETXE**
Udalak, bestalde, hainbat zalantza argitzeko triptikoa banatu du aste bukaeran etxez etxe. Horrekin batera, galdeketaren gaineko informazioa eta horretan bozka daitezkeen hiru aukerak dituen gutunazala banatu du.

**ESKORIATZA** > AISIALDIA

## Pirritx eta Porrotxen sarrerak agortu dira

Ordu eta erdian 1.500 sarrera inguru saldu ziren bariku goizean kiroldegian, Gozo-Txikin eta Dorleta paper-dendan

**M.B.** > ESKORIATZA
Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoak Eskoriatzan ikusi gura dituenak eta oraindik sarrera barik dagoenak, hurrengo baterako utzi beharko du. Pailazoen lan berria ikusi ahal izateko sarrera guztiak saldu dira-eta.

Guztira, 1.500 zeuden saltzeko, bost euroren truke. Goizean goiz banatu ziren guztiak honako lekuetan: Gozo-Txiki, Dorleta paper-dendan eta kiroldegian.

Dorleta paper dendan 07:15ean hasi ziren saltzen. Ordu eta erdi baino ez zituzten hangoek behar 500 sarrera saltzeko. Gozo-Txikin ere antzera ibili ziren. 09:00etarako, zabaldu zutenerako, ilara handiak zituzten; ordu erdi baten agortu ziren 500 sarrerak, bereziki eskoriatzarren artean. Kiroldegian, bestalde, 08:15ak aldera zabaldu zituzten leihatilak. Ordu eta erdi behar izan zituzten 400 sarrerak banatzeko. Inguruko herrietako jende asko gerturatu zen hara, bereziki Aretxabaletakoak eta Arrasatekoak.

**AZAROAREN 29AN**
Jakina denez, aurten ere Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoek *Piratak* izeneko lan berria aurkeztuko dute Eskoriatzan. Ikuskizuna azaroaren 29an, zapatua, izango da kiroldegian, 17:30ean.

**ESKORIATZA** > UDALA

## Zabalik dago tasak ordaintzeko epea

Abenduaren 5ean amaituko da estolderia eta ur hornikuntza zein zabor bilketaren tasak ordaintzeko epea

**M.B.** > ESKORIATZA
Eskoriatzarrek datorren abenduaren 5era arte dute estolderia eta ur hornikuntza tasak eta zabor bilketa tasak borondatez ordaintzeko aukera. Aurtengo hirugarren hiruhilabetekoari dagokion ur hornikuntza tasa eta bigarren sei hilabetekoari dagokion zabor bilketa tasak dira horiek.

Ohikoa den moduan, norberaren aurrezki kutxaren edo banketxeen bidez ordaindu beharko dira tasa horien ordainagiriak.

Aipatutako epean zorrak ordaintzen ez badira, prozedura exekutibotik eskatuko dira eta horiei premiamenduzko errekargua, berandutza interesak eta sor daitezkeen kostuak gehitu beharko zaizkie.

Hirusta
Jatetxea
Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA



Uruburun 60 etxebizitza eraiki dituen Lekber enpresak ordainketa etendura deklaratu du. L.Z.

**ELGETA** > UDALA

# Udalak lokala erosiko du Domingo Iturbe kalean

## Udal langileendako aldagelak eta dutxak ipiniko dituzte tasatuetako eraikinaren beheko lokalean

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Zerbitzuko udal langileen aspaldiko eskaera da; lokal bat aldagelekin eta dutxarekin. Udalak aukera bat ikusi du Domingo Iturbe kaleko 13. atarian dagoen lokalean; etxebizitza tasatuen eraikinean, hain zuzen ere.

"Lokal hori ondo etorriko zaigu zerbitzuko langileak erabiltzeko eta horrela Artekaleko lokala biltegi moduan erabiltzeko. Frontoi zaharrean dagoen materiala gorde eta beste makineria batzuk uzteko", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak.

**30.000 EUROKO AURREKONTUA**

BEZ barne, Udalak 30.000 euroko gastua aurreikusten du erosketa operazio horretan. Udal arkitektoak lokalaren balorazioa egin du eta gastuari aurre egiteko ez diru sailik ez finantziaziorik ez dagoenez, udal arduradunak aztertzen dihardute inbertsioetan gastatu gabeko diru sailen bat horretarako erabiltzea. Helburua da operazioa kreditu aldaketa baten bidez finantzatzea. Zerbitzutako udal langileek eskertuko dute, ziurrenik, urteetako eskaerari erantzuna ematea.

**LEKBERREK PORROTA**

Eguazteneko albistea da, Uruburun 60 etxebizitza egin dituen Lekber enpresa eraikitzaileak porrot egin duela; hau da ordainketa etendura deklaratu du.

Albisteak kezka piztu du etxebizitzen jabeen artean. Lanak amaituta daude, baina horrelakoetan beti sortzen dira erreklamazioak. Berez, epe bat dago aurreikusita dagokionari erantzukizunak eskatzeko.

Elgetako kaltetuek jakin gura dute Lekber enpresa eraikitzailearen ordainketa etendurak zertan eragingo dien, eta orain nork hartuko dituen zintzilik geratu diren ardura horiek guztiak bere gain.

**LEINTZ GATZAGA** > OSOKO BILKURA

# Goierri auzoko lursail bati kalifikazioa aldatzea erabaki du udalbatzak

## Otsailean ziren egitekoak aldaketa gero beste lursail bategatik trukatzeko, baina atzeratu egin zuten orduan

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Goierri auzoan dagoen Gatzagako mendiko lursail publiko baten kalifikazioa aldatzea onartu zuen udalbatzak urriaren 28ko osoko bilkuran. Behin behineko onarpena izan zen egindakoa, eta aldaketa horren berri emango dute datozen egunotan Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Behin argitaratuta 30 eguneko epea izango dute interesatuek alegazioak aurkezteko, eta udaletxean izango dituzte argibideak.

**TRUKAKETA EGITEKO**

Otsailean egindako osoko bilkuran eztabaidatu zuen lehen aldiz udalbatzak lur publikoaren izaera juridikoa aldatzea, ondoren beste lursail bategatik trukatzeko. Kontu hori, baina, aurreko agintalditik zetorren, eta Eusebio Villar alkateak erabaki zuen gaia atzeratzea hobeto aztertu eta behar bezalako erabakia hartzeko.

Zortzi hilabete pasatu eta gero kalifikazio aldaketarekin aurrera egitea erabaki du udalbatzak, eta aho batez onartu zuten azken ohiko osoko bilkuran. 30 eguneko epean alegaziorik ez badu inork aurkezten, onartutzat emango dute aldaketa. Alegazioren bat egonez gero, ostera, atzeratu egingo litzateke tramitazioa; izan ere, lehenengo aztertu egin beharko lituzkete banan-banan eta gero erantzuna eman guztiei.

Kalifikazioa aldatutakoan trukaketa egin gura duen lursailaren jabearekin jarriko da harremanetan Udala, kontuak adosteko.

**ARAMAIO** > GANTZAGAKO JAIAK

# Kantu-afariarekin hasi zituzten jaiak Gantzagan

## Zapatuko tortilla lehiaketan zazpi talde aritu ziren lehian; eguerdian Aretxabaletako abesbatzak emanaldia egin zuen elizan

**GOIENKARIA** > ARAMAIO

Aste bukaera festa giroan murgilduta pasa dute Aramaioko Gantzaga auzoko bizilagunek. Egubakoitzean kantu-afaria egin zuten jaiak behar moduan hasteko eta 40 auzotar inguru bildu ziren bapo afaldu eta euskal kantuak abesteko.

Zapatu eguerdian jende dezente gerturatu zen elizara Aretxabaletako abesbatzaren kontzertura, baita ondorengo *bermouth dantzara* ere. Buzkantzak eta txorizoak dastatzeko aukera egon da, gainera, aste bukaeran.

Aurten nobedaderik ere izan dute Gantzagako jaiek. Tortilla lehiaketan adin guztietako lagunek parte hartu ahal izan dute; lehiaketa ez da gaztetxoei mugatu. Zazpi taldek jardun zuten lehian eta irabazleak aukeratzen nahikoa lan izan zuen epaimahaiak. Ander Uralde eta Leire Amias izan ziren irabazleak.

Mus txapelketan, bestalde, sari nagusia Etxaguenera joan den aurten. San Melixenak bukatzeko meza eta txirrindulari lasterketa izan ziren atzo, domeka.



Tortilla lehiaketan zazpi talde lehiatu ziren. JONE INUNTZIAGA

**ANTZUOLA** > AISIALDIA

# Bidaien gaineko berbaldiak hilabetean behin izango dira

## Antzuolarrek munduko txokoetan ateratako argazkiak erakutsiko dituzte

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

*Antzuolarrak munduan zehar* egitasmoko lehen emanaldia joan zen eguenean egin zuten Olaran etxean. Maite Telleriak Mexikon egindako egonaldia azaldu zuen argazkien bitartez eta hango bizipenak kontatu.

Herritarren kolaborazioa eskatu zuen Udalak ekimen hori abian ipintzeko eta aurrerantzean ere bidaien gaineko emanaldirik izango dela jakinarazi dute antolatzaileek.

Hilean behin, antzuolar batek egindako bidaiaren berri herritarrei ematea da hitzaldi horien asmoa.

**BIRMANIA ETA GUATEMALA**

Datorren hilabetean, aldaketarik ezean abenduaren 9an, Jone Legorburuk hartuko dio bidaiarien lekukoa Maite Telleriari. Birmanian egona da Jone eta hango berri emango du.

Hurrengoa Kepa Igartza izango da. Urtarrilerako dago iragarrita honen emanaldia eta Guatemalara egindako bidaia izango du berbetarako gai.

Batzuek eta besteek aukeratu dituzten herrialdeak elkarren artean oso ezberdinak dira eta bidaiatzeko moduek ere beharbada ez dute antz handirik izan. Hortaz, hitzaldi horiek herrian antolatzea interesgarria izan daiteke bidaiak eta toki berriak ezagutzea gustuko dutenendako. Izan ere, herrialdeak bertatik bertara ezagutu dituen jendearen eskutik jaso ahal izango dute informazioa gerora bidaiatu nahi badute.




**> FUTBOLA**
Aloña Mendirendako garaipena, Mondra eta UDArendako berdinketa **> 19**





**> ERRUGBIA**
Arrasatek 13-13 emaitza egin du Elorrioko taldearen aurka **> 16**



**> AUTO GIDATUAK**
Dos Pistones elkarteko kide Sergio Frutos eskoriatzarrak esan digu Debagoienean ere gero eta lagun gehiago elkartzen direla zaletasun honen bueltan **> 21**




**SASKIBALOIA** > ESKORIATZA

# Denboraldi hasieran jarritako helburuak betetzen doa taldea

Txapelketa erregularra lehen lau postuetan amaitzea dute helburu gero lehian jarraitzeko

ESKORIATZA
**58-37**
CAFÉS AITONA

**Eskoriatza** > Sanchez (2), Laborda, Gomez, Heriz (2), Alartzia (4), Usabiaga, Caneras (11), Exposito (26), Soriano (4), Ugalde (5) eta Sologaiztoa (4).

**Cafés Aitona** > Garin (7), Sanchez, Lekue, Ibargoien (4), Ortega (4), Cubillo, Zendoia (4), Serrano (5), Mendiluzea (8), Muñoz (5) eta Gartzia.

**Emaitzak** > Lehenengo laurdena: 15-7. Bigarren laurdena: 33-13. Hirugarren laurdena: 52-25. Laugarren laurdena: 58-37.

**LARRAITZ ZEBERIO** > ESKORIATZA
Eskoriatzako taldea denboraldi hasieran jarritako helburuak betetzen ari da. Fernando Rasok gidatzen duen taldeak txapelketa erregularra lehenengo lau postuetan amaitzea du helburu, modu horretan beste multzoko lau lehenengo taldeen aurka jokatuko den kanporaketarako txartela eskuratzeko. "Gure esku dagoen helburu bat dela uste dut", adierazi du Raso entrenatzaileak. "Behin kanporaketan, bestelakoak izango dira kontuak guretako. Txapelketa horretan talde oso lehiakorrak egongo dira eta nabarmen zailduko dira gauzak guretako, baina ez dugu ezer oparituko. Guk ere maila ona dugula uste dut eta gure onena emango dugu, ziur".

**AZKEN PARTIDUAN, 58-37**
Zapatuan Intxaurtxuetan Donostiako Cafés Aitona taldearen aurka jokatutako norgehiagoka alde nabariarekin irabazi zuten eskoriatzarrek. 21 punturen aldearekin, hain zuzen ere. Partiduak, baina, bi zati oso ezberdin izan zituen.

Ondo hasi ziren etxekoak; defentsan zein erasoan lan ona egiten. Markagailuan bere eragina izan zuen horrek. Lehenengo laurdenean zortzi puntuko aldea atera zuten etxekoek (15-7) eta atsedenera 33-13ko emaitzarekin iritsi ziren. "Hirugarren laurdenean trabatu egin gara", onartu du Rasok. "Erasoan jaitsi egin gara eta defentsan ez dugu asmatu. Donostiako taldeak defentsa aldaketa egin du eta ez dugu erantzuna ematen asmatu. Hirugarren laurdena txarra izan bada, laugarrenean penagarri ibili gara. 6-12ko partziala egin digute. Gaizki ibili gara bai erasoan bai defentsan. Batzuetan gertatzen da amaierara alde handiarekin iristen zarenean taldea erlaxatu egiten dela. Akaso, hori gertatu zaigu. Donostiarrek gora egin dute eta guk, berriz, nabarmen behera".

Azken norgehiagokan taldearendako tanto gehien sartu zituzten jokalarien artean bi nabarmendu behar ditugu; Exposito eta Caneras. Lehenengoak 26 puntu egin zituen eta Canerasek, berriz, 11.

**AURRERA BEGIRA**
60 bat jarraitzaileren aurrean jokatu zuten zapatuko norgehiagoka Eskoriatzako neskek. Txapelketa erregularreko hiru norgehiagoka jokatu dituzte eta horietatik bi irabazi.

"Ondo ari gara ", adierazi du Raso entrenatzaileak. "Hori bai, azken bolada honetan gorabehera handiak ditugu. Arazoak ditugu baja ugari ditugu-eta taldean, eta agian ez dugu behar beste entrenatzen. Jokalari batzuk lesionatuta daude, beste batzuk azterketa garaian daude... entrenamendu batzuetan gutxi elkartzen gara eta horrela ezin da %100a eman. Baina pasatuko da bolada hau ere. Horrela espero dut, behintzat".

Kontuak kontu eta arazoak tarteko, Eskoriatzako taldeak denboraldi hasierako helburuak betetzen dihardu.

Orokorrean, donostiarrek baino itxura hobea eman zuten zapatuko partiduan eta zer hobetu baduten arren zaleak gustura gelditu ziren norgehiagokaren amaieran. Oraindik partidu asko gelditzen dira aurretik. Ondo hasitako bideari jarraipena emango al diote?



**SASKIRATZEAK** Lan hobea egin zuten etxekoek saski azpian. JOSETXO ARANTZABAL



**ERASOAN** Alartziak 11 puntu egin zituen. J.A.



**ZUZENDARITZA** Manolo Muñoz harmailetan. J.A.



**ENTRENATZAILEA** Fernando Raso taldeari agindauk ematen. J.A.

**ERRUGBIA** > ARRASATE-ELORRIO

# Joko maila eskasa erakutsi arren, norgehiagoka zirraragarria egin zuten

Arrasatearrek lo eman zioten hasiera Elorrioren aurkako norgehiagokari, baina azken unean emaitza txukuntzen asmatu zuten

ARRASATE
**13-13**
ELORRIO



Entsegu bat eta bi jaurtiketa egin zituen etxeko taldeak zapatuko norgehiagokan. JOSETXO ARANTZABAL

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARRASATE

Joko maila eskasa erakutsi zuten zapatu arratsaldean Mojategin bai Arrasatek eta bai Elorriok. Markagailu aldetik zirrara piztu zuen, izan ere etxekoek azken segundoan lortu zuten berdinketa. Norgehiagoka guztian zehar atzetik ibili ostean, emaitza txukuntzen asmatu zutela esan behar da.

**LEHENENGO ZATIAN, 3-5**

Norgehiagoka hasi bezain laster egin zuen lehenengo entsegua Elorriok. Arrasatekoak lo harrapatu zituen tantoak, baina zorionez atsedenera joan aurretik Unai Lazkanok makiletara egindako jaurtiketa baten bitartez hiru puntu lortu zituen. Partidua ez zegoen oraindik galduta. Atsedenaren ostean biziago agertu ziren etxeko jokalariak.

**BI ENTSEGU BIGARREN ZATIAN**

Ondoko futbol zelaian Mondra eta Ondarroako Aurrera aurrez aurre zirela ekin zioten bigarren zatiari errugbi jokalariek Mojategin.

Elorrioko taldeak lortu zuen bigarren zati horretako lehenengo entsegua gauzatzea. Etxekoek erreakzionatu beharra zeukaten eta etorri zen erantzuna. Igor Eraña izan zen egilea. Entsegua lortu zuen eta oso polita gainera. Zaleek eskertu zuten jokaldia.

Berdinketa norgehiagoka amaitzear zegoela iritsi zen, ia ustekabean. Falta baten ondorioz etxeko jokalari Unai Lazkanok makiletara jaurtiketa egiteko aukera izan zuen. Eta, zorionez, ez zuen hutsik egin. Jaurtiketa horrekin norgehiagoka berdintzeko taldeak behar zituen hiru puntuak lortu zituen Lazkanok.

Garaipena esku artean eduki ostean, burumakur bukatu zuten Mojategiko norgehiagoka bizkaitarrek. Zelaian erakutsitako jokoak, baina, ez zuen askoz ere gehiago merezi. Azkenean, 13-13 markagailuan.




gizarte ekintza
hezkuntza
"...ILARGIA ERDIAN ETA ZU GORUNTZ BEGIRA..."
Bada, hori guztia bizitzeko aukera duzu orain
Zientziaren kutxaGuneko Planetarium berrian, Donostian
paregabea eta ikusgarria, benetan, bere Super High Definition sistemari esker
943 012 478
www.miramon.org
ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa
BRAD
JUSTIN


Negu honetan,
ahaztu hotza.
ESKAINTZA PAREGABEA
Naturgas energiarekin,
gas naturalez gozatuko duzu etxean.
Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzaileekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.
Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kanpo).
+
KREDIGAS
finantziazio berezia,
instalazioa hileko kuota erosotan finantzatzeko.
+
570 €
ere emango dizugu
Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.
Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gaueko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, barruko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarraren gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin hornikuntza alta egin beharra dago.
902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com
naturgas energia

**PREFERENTEA** > UDA-TRINTXERPE

# Aretxabaletarren ahaleginak ez zuen merezitako emaitza lortu

0-2 aurreratu zen Trintxerpeko taldea, baina berdintzea lortu zuen etxeko taldeak

UDA
**2-2**
TRINTXERPE

**UDA** > Elgarresta, Gomez (Sanchez, 84. min.), Garai, Mesonero, Astola, Urtzelai (Agirre, 77. min.), Rodriguez, Igartua (Iturbe, 93. min.), Orueta, Lopez eta Espinosa.

**Trintxerpe** > Diez, Kiteireddine, Zugarramurdi (txartel gorria, 67. min.), Lopetegi, Sanchez, Hidalgo (Varela, 63. min.), Iza (Berasategi, 37. min.), Caminaur (Santiago, 93. min.), Cachafeiros (Gartzia, 57. min.), Muñoz eta Perez (Etxarri, 77. min.).

**Golak** > 0-1: Izak (28. min.). 0-2: Muñozek (35. min.). 1-2: Igartuak (73. min.). 2-2: Espinosak (85. min.)



Erasoan ahalegin handia eman zuten Gordobilen mutilek, batez ere atsedenaren ostean. JOSETXO ARANTZABAL

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARETXABALETA

Ondo eman zioten hasiera norgehiagokari Aretxabaletako mutilek; jokaldi politak eginez eta aukerak sortuz. Ustekabean, baina, partidua maldaz gora ipini zitzaien. Zazpi minutuan Trintxerpekoek bi gol egin zituzten, biak ere korner bidez.

Ezustearen ondorioz galduta ibili ziren etxekoak tarteka, baina jarrera aldaketa erakutsi zuten atsedenaren ostean partiduari beste norabide bat emanez.

**LEHIAKORTASUN HANDIA**

Atsedenaren ostean beharrezkoak zituzten bi golen bila zelairatu ziren Gordobilenak, baita lortu ere. Aukera asko sortu zituzten eta jarraitzaileen animuekin iritsi ziren berdinketako golak.

Azken 27 minutuak jokalari bat gehiagorekin jokatu zuten, hori bai.

**PREFERENTEA** > MONDRA-ONDARROAKO AURRERA

## Penaltiz lortu zuten berdinketa kostaldekoek

Mondra aurreratu zen markagailuan, baina atsedena aurretik etorri zen berdinketa

MONDRA
**1-1**
ONDARROAKO AURRERA

**L.Z.** > ARRASATE

Ez atzera ez aurrera egin dute Mondrako jokalariek zapatuko norgehiagokan. Sailkapenean postu bat aurretik zuten Ondarroako Aurrera taldearen bisita izan dute aste bukaeran eta banakako berdinketarekin amaitu zen norgehiagoka.

Hori bai, egon zen saltsa harmailetan. Jon Muruamendiarazen gola ikusgarria izan zen benetan eta Ondarroako Ibai Aramaio jokalariak giroa berotzea lortu zuen behin eta berriz lurrera eroriz. Berak lortu zuen epaileak etxeko taldearen aurkako penaltia adieraztea.

**GOL GOIZTIARRA**

Futbol zelaira irten eta minutu gutxira egin zuen norgehiagokako lehenengo eta azken gola etxeko taldeak. Jon Muruamendiaraz izan zen egilea eta golaren ikusgarritasunarengatik zaleen txalo zaparrada beroa lortu zuen.

Berdinketaren tantoa 20. minutuaren bueltan etorri zen. Epaileak etxeko taldearen aurkako penaltia adierazi zuen eta Ondarroako Ander Prietok gauzatu zuen gola.

Emaitza horrekin sailkapeneko postu berdinean jarraitzen du Mondrak, taulako 13. tokian hain zuzen ere.

**PREFERENTEA** > ALOÑA MENDI-HONDARRIBIA

## Hasieran gola sartu eta abantailari eutsi, arazo barik

Lehen eta bigarren zatiko hasierako minutuetan iritsi ziren Aloñaren golak

ALOÑA MENDI
**2-0**
HONDARRIBIA

**E.M.** > OÑATI

Aurreko astean Irunen partidu hobea egin eta puntu bakar batekin konformatu behar; atzo, berriz, ez hain ondo jokatu baina hiru puntuak zorrora. Gauzak berehala alde jarri zitzaizkien oñatiarrei: Roberto Idigorasek 11. minutuan egin zuen lehenbiziko gola. Hondarribiak (azken bi partiduak galdu dituzte Mondra eta Aloñaren kontra) aurrera egin behar izan zuen, baina ez zuten apenas arriskurik sortzen kostaldekoek.

**BI PENALTI PARTIDUAN**

Eta bigarren zatiaren hasieran ere lokartu samar atera ziren Hondarribiko jokalariak. Unai Arregik penaltiz egin zuen 2 eta 0ekoa, partidua erdi erabakita utziz. Oñatiarrek ez zuten arazorik izan abantailari eutsi eta kontraerasoan arriskua sortzen jarraitzeko. Hala ere, ez zen gol gehiagorik izan Azkoagainen. Partidua bukatzear zela, Hondarribiak penaltia huts egin zuen: Oier Zabaletak jarraian gelditzen duen bigarren penaltia izan zen atzokoa.

Sailkapenaren erdialdean da Aloña orain, 15 punturekin: partidu bakarra galdu dute, sei berdindu (berdinketaren erregeak) eta hiru irabazi dituzte. Hurrengo aste bukaeran Ondarroako Aurrerari egingo diete bisita Josu Zubiaren mutilek.

**emaitzak eta sailkapenak**

**PREFERENTE MAILA**

**Sailkapena**

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. **Tolosa** | **21** | 10 |
| 2. **Pasajes** | **20** | 10 |
| 3. **Idiazabal** | **18** | 10 |
| 4. **Berio** | **17** | 10 |
| 5. **Real Union** | **16** | 10 |
| 6. **Hondarribia** | **16** | 10 |
| 7. **Hernani** | **15** | 10 |
| 8. **Trintxerpe** | **15** | 10 |
| 9. **Aretxabaleta** | **15** | 10 |
| 10. **Aloña Mendi** | **15** | 10 |
| 11. **Zumaiako** | **13** | 10 |
| 12. **Ondarroako Aur.** | **13** | 10 |
| 13. **Mondra** | **12** | 10 |
| 14. **Euskalduna** | **12** | 10 |
| 15. **Astig. Mundarro** | **9** | 10 |
| 16. **EHU Vasconia** | **6** | 10 |
| 17. **Amaikak Bat** | **6** | 10 |
| 18. **Anaitasuna** | **4** | 10 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Pasajes-EHU Vasconia | 2-2 |
| Berio-Real Union | 4-3 |
| Aloña Mendi-Hondarribia | 2-0 |
| Mondra-Ondarroako Aurrera | 1-1 |
| Tolosa-Amaikak Bat | 3-0 |
| Astig. Mundarro-Zumaiako | 3-1 |
| Idiazabal-Hernani | 1-0 |
| Aretxabaleta-Trintxerpe | 2-2 |
| Euskalduna-Anaitasuna | 3-0 |

**Hurrengoak**

Anaitasuna-EHU Vasconia
Real Union-Pasajes
Hondarribia-Berio
Ondarroako Aurrera-Aloña Mendi
Amaikak Bat-Mondra
Zumaiako-Tolosa
Hernani-Astig. Mundarro
Trintxerpe-Idiazabal
Euskalduna-Aretxabaleta

**BESTELAKOAK**

| LEHENENGO ERREGIONALA | |
|---|---|
| Orioko-BTLS | 0-2 |
| Eibartarrak-Aretxabaleta | 1-0 |
| Antzuola-Tolosa | 3-2 |
| Lagun Onak-Mondra | 2-1 |
| Bergara-Elgoibar | 3-0 |

| BIGARREN ERREGIONALA | |
|---|---|
| Segura Goierri-Bergara | 2-2 |

| GAZTE MAILAKO EUSKAL LIGA | |
|---|---|
| Antiguoko-Aretxabaleta | 1-2 |
| Zarautz-Bergara | 1-0 |

| OHOREZKO GAZTEAK | |
|---|---|
| Burumendi-Aloña Mendi | 2-1 |

| LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK | |
|---|---|
| Aretx.Arizmendi B-Ilintxa | 1-1 |
| Eibartarrak-Mondra | 2-4 |
| Bergara B-Eibartarrak B | 2-1 |

| OHOREZKO KADETEAK | |
|---|---|
| Arrasate-Urola | 2-5 |
| Aloña Mendi-Eibar B | 3-0 |
| Billabona-Bergara | 2-2 |
| Zarautz-Aretxabaleta | 1-2 |

| LEHENENGO MAILAKO KADETEAK | |
|---|---|
| Arizmendi-Aretxabaleta | 0-8 |
| Aloña Mendi-Eibartarrak | 0-1 |
| Soraluze-Bergara B | 5-1 |

| KADETE TXIKI | |
|---|---|
| Arrasate-Vasconia | 1-2 |

| OHOREZKO INFANTILAK | |
|---|---|
| Bergara-Aurrera | 1-2 |
| Aretxabaleta-Zarautz | 0-2 |

| LEHENENGO MAILAKO INFANTILAK | |
|---|---|
| Urki-Arrasate | 0-4 |
| Ilintxa-Aloña Mendi | 1-2 |

| INFANTIL TXIKI | |
|---|---|
| Arrasate-Urola | 5-0 |
| Reala-Bergara | 6-0 |
| Zarautz-Aretxabaleta | 9-0 |

| EMAKUMEZKOEN LIGA | |
|---|---|
| Elgoibar-Aloña Mendi | 3-0 |
| Mondra-Soraluze | 0-3 |
| Arizmendi-Eibartarrak | 1-1 |

| EMAKUMEZKOEN F-8 KADETEAK | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Allerru | 0-1 |

**LEHEN ERREGIONALA** > BERGARAK, LIDERTZA GERTU

# Bigarren zatira arte itxaron behar izan zuen Bergarak golak egiteko

Epaileak Elgoibarko bi jokalari eta entrenatzailea kanporatu zituen

| BERGARA |
|---|
| **3-0** |
| ELGOIBAR B |



Oier Loiola bergararra Elgoibarko jokalari batekin borrokan, zapatuko partiduan. JOSETXO ARANTZABAL

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Bergarak Lagun Onak taldearen atzetik jarraitzen du liga hasiera honetan. Azpeitiarrek 2-1 irabazi zioten zapatuan eta mahoneroek Elgoibar B mendean hartu zuten etxean, 3-0. Hala ere, emaitzak erakusten duena baino zailtasun gehiago izan zituzten Manu Diazen mutilek. Lehen zatian golik ez, nahiz eta Bergara nagusi izan zelaian. Jarraipenean etorri ziren partiduko hiru golak: Imanol Cabanillasek egin zituen aurreneko biak eta Gorka Martinezek hirugarrena.

Epailea izan zen protagonistetako bat zapatuan: bisitarien taldeko bi jokalari kaleratu zituen eta Bergarako Unai Agirre ere aldageletara bidali zuen. Txartelak ateratzeko gehiegizko erraztasuna erakutsi zuen epaileak eta Elgoibarko entrenatzaileari ere gorria atera zion, protesta egiteagatik: arrazoia zuen entrenatzaileak beraien aurkako bigarren txartel gorria zela eta protestatzean. Etxekoendako, onena emaitza: Bergarak sendo jarraitzen du eta bi puntura du Lagun liderra.

> SASKIBALOIA

## Luzapenean galdu zuen MUk atzo, Arrigorriagan

Lehen mailako Mondragon Unibertsitatea taldeak eskura izan zuen atzo denboraldiko lehen garaipena. 40 minutuak 83ko berdinketarekin amaitu ondoren, luzapenean galdu zuten Javi Zurbanoren mutilek Padura taldearen kantxan, Arrigorriagan. 100-94 nagusitu ziren bizkaitarrak.

Zazpi partidu jarraian galdu dituzte arrasatearrek eta aste buruan etxean jokatuko dute, Iturripen.

> ESKUBALOIA

## Ford Mugarrik eta Verkol Aloñak galdu, Euskadiko Ligan

Ford Mugarrik galdu egin zuen zapatuan Lea Corazonistas taldearen kantxan, 29-28. Orgazen mutilek partidu ona egin zuten, baina ez zuten bi puntuak ekartzerik izan.

Senior preferente mailako Euskadiko ligan Verkol Aloñako neskek 23-20 galdu zuten, Zarautzeko Aiala Ostalaritza Eskolaren aurka. Kadete eta gazte mailetako Oñatiko neskek, berriz, atsedena izan dute.

Gama Fiesta 100 km.ko 4,2tik 5,9rako litroko batazbesteko kontsumo konbinatua. Kilometroko 110etik 139 gramorako CO2ko isurketa. SMSaren kostea 0,07¤/sms x 2 + BEZ. FORD ESPAÑAk zure datuak erabiliko ditu SMS bidez edo telefonoz zure eskaera gestionatzeko. Zure datuak onartu, zuzendu, aurka egin edo deuseztatu ahal egingo dituzu komunikazio idatzia eta NAN-aren kopia bidaliz: FORD ESPAÑA, S.L. Bezeroen saila, 3 zkiko. Posta Kutxatila, 46700 Gandía (Valentzia) (Datuen Babeserako 99/15 L.O.)



**Sergio Frutos** > Auto telegidatuak

# "Auto telegidatuak ez dira jostailuak"



Sergio Frutos autoarekin jolasean, Intxaurtxueta parean, zapatuan. JOSETXO ARANTZABAL

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ESKORIATZA

**Sergio Frutos eskoriatzarraren zaletasuna auto telegidatuak dira. Barakaldoko Euskadiko txapelketan bigarren sailkatu zen Frutos. Gure bailaran dagoen zaletasunaz eta orain hiru urte sortu zuten Dos Pistones elkarteaz berba egin dugu.**

**Noiztik duzu auto telegidatuekiko zaletasuna?**

Zaletasuna betidanik dut, txikitan lehenengo auto telegidatua eskatu nuenetik. Gerora serioago hartu dut zaletasuna eta azkeneko hamar urteetan serio ibili naizela esan daiteke.

**Zaletasun bera duzuen lagunak elkartu eta Dos Pistones elkartea sortu duzue. Zenbat lagun zarete elkartean eta noiz biltzen zarete?**

Elkartea orain dela hiru urte sortu zen. Gure elkartzeko tokia Eroski aurrealdeko aparkalekua zen. Zaletasuna genuenez hara joaten ginen, batez ere domeka goizetan. Gero eta jende gehiago hasi ginen biltzen eta elkartea sortu genuen.

**Euskadiko txapelketan parte hartu, eta 2. tokian sailkatu zinen. Nolakoa izan zen?**

Printzipioz nahiko gogorra izan zen. Eguraldi hotza izan genuen eta pistako egoera ez zen batere ona, aldakorra izan zen lasterketa guztian zehar. Aurkariekin gogor borrokatu behar izan nuen, baina azkenean 2. tokia eskuratu nuen.

**Zaletasun hau ez da oso ezaguna. Zein da gaur egungo egoera?**

Gero eta zaletasun gehiago dago. Ikusten dugu etxe askotan badaudela auto telegidatuak baina autoek dituzten gastuak direlako-edo beti armairuan sartuta daude. Euskadi mailan gora doan zaletasuna da, txapelketatan 20 lagun inguru biltzen gara. Datorren urteari begira antzerako etorkizuna ikusten dugu.

**Non entrenatzen duzue; eta, instalazio egokiak dituzue?**

Ez, bailara mailan ez dago instalazio egokirik. Barakaldoko zirkuitora joaten gara entrenatzera eta Eroskin ere ibiltzen gara. Txapelketa prestatzeko, zirkuitura bertara joan behar izaten dugu, hori da behintzat egokiena. Arrasaten, beste gauza batzuekin arduratzen gara: autoa puntuan jartzeaz, adibidez. Ondo pasatzea izaten da helburua.

**Aukeak aurreikusi zuen zuendako zirkuitua jartzea, baina, egokia ez zelako bertan behera geratu da proiektua. Zela dago egoera orain?**

Dena geldi dago. Printzipioz auto telegidatu elektrikoendako pentsatutako gunea zen. Galdetu ziguten zer behar genituen eta guk gure beharrak azaldu genuen; lehenengo gauza esan genuena izan zen toki hura ez genuela ikusten gure zaletasuna praktikatzeko egokia. Eurak ere ados zeuden horretan.

**Esan daiteke zaletasun garestia dela?**

Esan daiteke garestia dela lehenengo inbertsioa, hau da, autoa erostea. Gero, mantentzea ez da hain garestia. Baina, zaletasun guztiekin bezala, norberak zer gura duen edo nora iritsi gura duen erabakigarria da. Norbaitek hilean behin domeka goiz baten ondo pasatzeko erabiltzen badu autoa, ez da garestia.

**Zer nolako autoak dira erabiltzen dituzuenak; potentzia, motorra...**

Gure autoak hiru kilo eta erdikoak dira eta hiru zaldiko potentziakoak. Auto hauek dituzten erreakzioak 1 Formulako autoen berdinak dira. Gutxi gora behera 80 kilometro orduko abiadura hartzen duten autoak dira. Ikusi daitekenez, ez dira jostailuak, askotan jendeak hori uste duen arren. Gasolinazko autoak dira; gasolina espeziala da, alkohola eta olioaren nahasketa berezia. Litroak 9 euro inguru balio du eta litro batekin ordubete ibili zaitezke.

**Aurrera begira, ze asmo du elkarteak?**

Datorren abenduaren 13an, Eskoriatzako Luis Ezeiza parkean tailer bat jarriko dugu; han, zirkuitu bat egingo dugu eta aukera emango diegu etxean autoak dituztenei kalera ateratzeko. Baita ere, erakutsi ditugu mantentzea eta gidatzeko dauden trkimailu ezberdinak. Helburua, auto telegidatuen inguruan egun polit bat pasatzea izango da eta hor doa gonbidapena zale guztiendako, etor daitezela.

**"Gero eta lagun gehiago elkartzen ginen eta azkenean elkartea sortzea erabaki genuen"**

**"Euskadiko txapelketa gogorra izan zen; eguraldi txarrak zirkuitu aldakorra utzi zuen"**

**"Gora doan zaletasuna da; txapelketatan 20 lagun inguru ibiltzen gara"**

**"80 kilometroko abiadura hartzen duten autoak dira erabiltzen ditugunak"**

**"Bailaran ez dago entrenatzeko instalazio egokirik; Barakaldora joaten gara"**

**"Abenduaren 13an Eskoriatzako Luis Ezeiza parkean tailerra jarriko dugu"**

BERGARA

# Saskibaloiko hirunako txapelketa jokatu zuten

**GOIZ DESBERDINA** Saskibaloiko partidu arruntetan jardun beharrean, talde txikiagotan bilduta jokatu zuten

**HIRU HERRI** Bergara, Antzuola eta Elgetako gaztetxoak Labegaraieta kiroldegian bildu ziren zapatuan

**POZIK** Gustura azaldu ziren taldeak txapelketan eta kantxan, ilusioz, euren onena erakusten saiatu ziren

AMAIA TXINTXURRETA > BERGARA

Zapatu goizean Bergarako Labegaraieta kiroldegia gaztetxoz bete zen saskibaloiko hirunako txapelketan. Lehenengo txandan alebin mailako 14 partidu jokatu ziren.

Hiru laguneko taldeak osatu zituzten gaztetxoek zapatuan. Kantxan momentu berean zortzi minutuko partidua jokatzen dute sei taldek eta irabazlea saskiratze gehien egiten dituena izaten da.

Bergara, Antzuola eta Elgetako taldekide guztiak nor baino nor jardun ziren, baina irabazleak Mariaren Lagundia B 2 eta Antzuola A1 izan ziren, berdindu egin baitzuten 23 saskiratzerekin.

Gaztetxo batzuk aurretik horrelako txapelketetan parte hartu zutela adierazi ziguten, baina beste askoren lehenengo aldia izan zen zapatukoa. Hala ere, harrera ona eduki zuen, izan ere, askoren ustez hirunakoetan baloia gehiago ukitzeko aukera ei dago. Gustura jardun zuten neska-mutilek.

Mikrofono eta guzti hitz egiten zuten antolatzaileek partidu guztiak momentu berean hasi eta amaitu zitezen. Antolatzaileez gain, entrenatzaileen eta gurasoen presentzia ere ez zen falta izan kiroldegian. Alebinen ostean, benjaminen txanda izan zen eta jo ta su ibili ziren gaztetxoak beraien indarrak neurtzen.

Saskibaloian jokatzeko beste aukera batzuk daudela ikasi zuten gaztetxoak. Eta zapatuko goiz gogorrari aurre egin eta gero, indarrak errekuperatzen joan beharko dira hurrengo astean atletismoari ekiteko.



A.T.

**San Martin F 2.** Ezkerretik eskumara: Asier Perez, Joseba Carnicero, Aritz Oiarzabal, Manex Bengoa, Unai Barrogan, Ander Kerexeta eta Jabi San Torkuato.



A.T.

**Antzuola B 1.** Ander Fernandez, Endika Cabo, Mikel Arregi, Xabier Iparragirre, Xabier Martin, Aritz Kortabarria, Unai Kortabarria eta Oskar Perez agertzen dira argazkian.



A.T.

**Elgeta.** Mikel Canelo, Pello Palacios, Goizaldi Arozena, Gaizka Morales, Jon Ugarteburu, Ibane Zubiaurre, Jone, Elkoro eta Maria Sarasua dira taldea osatzen duten gaztetxoak.



A.T.

**San Martin E.** Moad Ghouzoula, Ander Maiztegi, Mikel Vicinay, Harri Otermin, Mikel Azkarate, Markel Garmendia eta Biken Larrañaga taldekideak ageri dira argazkian.

## GUSTATZEN AL ZAIZU HIRUNAKO TXAPELKETA?



**Ander Fernandez**
Antzuola

"Saskibaloiko partidu normalak baino gehiago gustatzen zait hirunako txapelketa" aitortu digu Anderrek. Izan ere, bere ustez "errazagoa da normala baino gehiago ukitzen dugu baloia". Beraz, pozik azaldu zitzaigun Ander.



**Jone Elkoro**
Elgeta

Jonek nahiago omen du partidu normalak jokatzea. "Partidu arruntetan talde guztiak batera jokatzen baitugu, eta hirunakoan, taldea bitan zatitu behar dugu. Gure xedea irabaztea da, baina garrantzitsuena parte hartzea da".



**Josu Dominguez**
Mariaren Lagundia

"Zerbait desberdina da eta atsegin dut", esan digu Josuk. Gainera, "aurretik esperientzia polita eduki nuen hirunakoan eta gaur berriz egitea oso ongi iruditzen zait". Gustura etorri dela eta oso ondo pasa duela adierazi digu.




**Mikel Bizinai eta Mikel Azkarate**
San Martin E

Azkaratek aurretik ezagutzen zuen hirunakoa. "Gaurko txapelketa aurrekoa baino errazagoa izan da zaharragoak zirelako haiek". Bicinairen lehen aldia izan da, ostera: "Guztiak guztien kontra goiz bakarrean jokatzea asko gustatu zait"



**Vesko Solenkov**
Aranzadi Ikastola

Hirunako txapelketa gustatzen zaio Veskori ere eta "jokatzeko talde txikiagoa garenez, aukera gehiago dauzkagu baloiarekin ibiltzeko", esan digu. Gaineratu digu oso pozik ibili dela partiduetan "zerbait desberdina" delako.



**> SU TA GAR**
Su ta Gar taldeak kontzertua eman zuen Bergarako Jam aretoan > 27



**> SHARON STONER**
Oñatiarrek bigarren diskoa, *13 Taupada,* aurkeztu zuten etxean barikuan > 27



**> ANA RAMOS**
Kazetari eibartarra *Teleberri*-ko kirol aurkezle lanetan dabil egun > 32



DANBAKAKO KONTZERTUA Arrasateko Bitter Honey taldea bigarrena izan zen Espaloiko eszenatokira igotzen. JOSETXO ARANTZABAL

# Erdira helduta, maila gora eta lehia gogortzen doa

Erdiak entzun ditugu dagoeneko eta denetan ikusi da aurtengoan maila ez dela edonolakoa

Teknikoki akats gutxi egonda, talde bakoitzaren berezitasun eta originaltasunean dago borroka

**JON BEREZIBAR** > ELGETA

Egubakoitzean kutsu bikaineko bakarlaria izan genuen, klase handiko 70eko rock taldea, rap metalik biziena ekarri zuen seikotea eta hirukote bat, gitarra zaurituekin maisuki jardun zuena. Lehiakideen erdiak dagoeneko entzunda bi ideia: lehia gogortzen doala eta pareka ditzakegun taldeak ere badaudela. Gaueko izotza apurtzeaz Los Viernes al Ron bakarlaria arduratu zen. Argiak piztu, harmonika berotu eta folk amerikarraren erroetara eraman gintuen Iñigo Irizarrek. Jendaurrean jotzea zer zen probatzeko aurkeztu dela kontatzen du Irizarrek; bada, bakarkako bataio honetan fundamentuz bete zuen zeremonia. Eta baita ondo bete ere, denok egin genuen-eta topa berekin, ron edo dena delakoarekin.

**TEKNIKA ETA KLASE HANDIA**

Hurrengoa Bitter Honeykoen ezti garratza izan zen. Ikusi besterik ez zegoen oholtza gainean orduak eta orduak egin dituztela jakiteko. Txukun, klase bikainarekin eta 70eko rock erritmoak kolore askorekin ekarrita, neurriko kontzertua egin zuten. Maila oso altua erakutsi zuten kide guztiek eta izugarri ondo defendatu zuten taldea. Benetan txukun. Parez pare jar daitezkeen taldeak daudela esan dugu, bada, Bitter Honeykoen aurkari zuzenak The 5 Twistersekoak ditugu; eta horiek ere ez zuten batere txarto egin; ikusi egin behar.

Estiloz guztiz beste mutur batetik etorri zitzaizkigun Army-Arma zornotzarrak. Rap metal talde bakarra dugu Danbakan eta talde guztien maila ezin hobea ikusita, baliteke estilo ezberdin batekin etortzea euren balio erantsia izan daitekeela Army-Armakoena. Hala ere, sei lagun oholtzara igota zuku gehiago atera ziezaioketen taldeari.

Eta gaueko beteranoak azkenik: Brankan. Aspalditik dihardute jotzen eta hiru kide oholtza gainera igota ere, nahikoa zaie bai presentziaz zein soinuz. Gitarra kolpeka ebakiak eginez eta barnetik ateratako kantuekin, saio benetan mamitsua egin zuten. Hauek ere, aurreko saioan Adi Holdenekoek egin moduan, intentsitatearekin egurra emanez borobildu dute gaua. Hauen lehiakide zuzen Adi Holden genituzke eta biek ala biek maila izugarria erakutsi zuten.

## Lagunen beroak ere lagun dezakeelako

Kostatu egin zitzaion jendeari egubakoitzean Elgetara igotzea baina Espaloira gerturatzea erabakitzen duenak gogoz egin ohi du eta egubakoitzekoan ere musikariak animatzeko prest etorri ziren gehienak. Hain zuzen, animuetan, kexatzeko aitzakiarik izan ez zuena Los Viernes al Ron izan zen, txalo eta txistuka hartu zuten-eta lagunek. Brankaneko lagunekin ere berdin. Finean, lehiaketan parte hartu ez baina Danbakan laguntza handikoak dira lagunak eta haien berotasuna; asko laguntzen du-eta horrek saio on bat egiterako orduan.



## LOS VIERNES AL RON | Antzuola

**Adituak esana** > Gaizka Vitoria
"Asko gustatu zait nola defendatu duen berea, igarri da berak konposatutako kantuak direla eta sentitzen dituela. Abestien soiltasuna eta interpretatzerako orduan sinpletasunaren alde egitea polita izan da. Harmonikarekin ere txukun; ikusten da musika asko gustatzen zaiola eta gustura ibili dela abestiak joten, bihotzarekin".

**Ikusleek esana** > Jon Gurutz Biteri
"Harmonikarekin daukan teknika asko gustatzen zait, emanaldi txukuna egin du. Bob Dylan ekarri dit gogora baina, batez ere, folka egiten duelako. Letrak ere aitatuko nituzke, metaforengatik. Oso gustura ikusi dudan kontzertua izan da".

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar
"Saio ona irudi zait, folk abeslarien molde moldekoa. Gustu handiz baina batez ere egin duena disfrutatu duela ikusi da. Gitarrarekin txukun eta harmonikarekin sekulako ukituarekin, saio ona izan da hasieratik bukatu arte".

**Bakarlariak esana**
"Hasieran gogorra egin zait. Gehien bat nahi nuen jende ezezagunaren aurrean jo. Etxean eta lagunekin jo dut baina bestea ere probatu gura nuen. Azkenean ondo sentitu naiz. Agian ez dut eman nahi adinako hori baina ondo. Fin-fin ibili ez naizen inpresio horrekin ere atera naiz, baina gustura, hala ere".



## BITTER HONEY | Arrasate

**Adituak esana** > Gaizka Vitoria
"Sekulako maila daukatela iruditu zait. Egiten duten musikak badauzka ezaugarri batzuk oso berezkoak, soinu propioa du eta hauek lortu dute. Abeslariak rock ahots oso ona dauka, The Cult-eko Ian Astbury ekarri dit gogora, pentsa. Benetan ondo ikusi dut taldea".

**Ikusleek esana** > Jon Gurutz Biteri
"Gaueko talderik onena. Estiloa bete betean dute 70eko hamarkadako rockarena eta lau taldekideak sekulakoak iruditu zaizkit. Gitarra jotzaileak Led Zeppelineko Jimmy Page ekarri dit gogora, jarrera, itxura eta teknika aldetik batez ere. Abeslariak ere oso ahots ona dauka".

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar
"Aurtengo taldeen maila bikaina aipatzea dagoeneko sobera egoten hasi dela ematen du baina hauekin ere, maila izugarriarekin, harritu egiten zara. Abestietan barietatea eta erritmikoki asko landutako kantuak dituzte. Abeslaria ere bikaina iruditu zait. Asko gustatu zait estiloa gogoko ez izanda ere".

**Taldekideek esana**
"Hartutako inpresioa ona izan da baina aste osoa urduri antzean egin dugu jo baino lehen. Gustura ibili gara, halere. Hasieran urduri atera bagara ere gero hartu diogu neurria. Taldea ere oso ondo espero moduan, guztia emateko prest".



## ARMY-ARMA | Zornotza

**Adituak esana** > Gaizka Vitoria
"Estiloaren aldetik gutxien gustatu zaizkidanak dira baina hala ere ez dut uste behar bezalako saioa egin dutenik. Agertokian sei izanda, ez dut uste bete dutenik eta oso detaile gutxi sartu dizkiote, adibidez, scratchetik. Bestalde, eurei disfrutatzen ikusten zitzaien eta hori ere kontuan hartzekoa da. Taldeak ere ondo jo du eta abeslaria ona iruditu zait".

**Ikusleek esana** >Jon Gurutz Biteri
"Teknika aldetik onak iruditu zaizkit baina ez da niri gehien gustatzen zaidan estiloa. Abeslaria, dagokion erregistroan, oso ondo ikusi dut baina, esan moduan, rap estiloa ez dut larregi gustuko".

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar
"Hasieran, musikalki desberdinagoak direlako-edo gustatu zaizkit baina indarra galtzen joan dira agian. Indarrean ez, baina bai, agian, ñabarduren gabezian galdu dute distira. Bestela indartsu eta kontzertu sendoa egin dute. Hala ere, sei lagunekin ikuskizun eta aberastasun handiago izan dezake musikak".

**Taldekideek esana**
"Lehiaketa nola dagoen muntatuta asko gustatu zaigu eta oso gustura atera gara jotzera. Jendearen berotasuna ere gustatu zaigu eta aretoak daukan soinua. Gurea izan da musika aldetik talde ezberdinena, rap-a egiten dugu baina gazteleraz".



## BRANKAN | Berriz - Markina - Mutriku

**Adituak esana** > Gaizka Vitoria
"Aurretik entzun nituenean ezustekoa hartu nuen eta zuzenekoan ez dute huts egin. Beharbada, kantu borobilik ez daukate baina zuzenean jotzen oso onak iruditu zaizkit. Euren estilo horretan jotzeko, batetik heldutasun musikala behar duzu eta esperientzia handia, bestetik".

**Ikusleek esana** > Jon Gurutz Biteri
"Gustatu zait estetikoki bateria hain aurrean, lehen planoan, ipini dutela. Hala ere, musikalki ez dit larregi esaten talde honek. Esan beharra dago, baita ere, kontzertu guztietatik laugarren edo azken jotea desabantaila izugarria ere badela ze jendea amaierarako saturatu egiten da".

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar
"Hiru zati moduan izan ditu hauen saioak, abestirik gogor eta riff sarkorrenekin bat, erritmiko eta melodikoagoa bigarren eta hirugarren akustiko bat. Bigarrenarekin geratuko nintzateke abestirik itsaskorrenak orduan jo dituzte-eta. Beste bietan, halere, ondo defendatu dute taldea".

**Taldekideek esana**
"Oso ondo. labur egin zaigu eta hori ez da txarra. Okerrena da berotzen hasi garenerako, orduan amaitu dela baina ordu erdiko saio batek daukana hori da. Gustura ibili gara eta disfrutatzen. Guztia ematen saiatu gara eta egin dugula esateko moduan ere bagaude".

## Publikoaren Saria

Eman zure botoa, kontzertuko sarreraren atzealdean zure gustuko taldea aukeratuta.

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | THE 5 TWISTERS | ARRASATE | Botoen % 15,46 |
| 2 | BITTER HONEY | ARRASATE | Botoen %14,63 |
| 3 | LOS VIERNES AL RON | ANTZUOLA | Botoen %12,16 |
| 4 | MERY MAY | ARRASATE | Botoen %10,92 |
| 5 | SCAM | ARETXABALATA | Botoen %10,30 |
| 6 | DAMUDOT | MALLABIA | Botoen %9,07 |
| 7 | BRANKAN | BERIZ-MARKINA | Botoen %5,97 |
| 8 | NI NEU | EIBAR | Botoen %5,36 |
| 9 | LORD WITCH | BERGARA | Botoen %4,94 |
| 10 | ADI HOLDEN | BERGARA | Botoen %2,88 |
| 11 | ARMY-ARMA | ZORNOTZA | Botoen %2,26 |
| 12 | TURBOSHIT | BERGARA | Botoen %2,06 |
| 13 | YMOTEK | ABADIÑO | Botoen %1,85 |
| 14 | HILBETE | DURANGO | Botoen %0,85 |
| 15 | NORMAN | EIBAR | Botoen %0,61 |
| 16 | THE MOTHER FUCKERS | ARRASTAE | Botoen %0,41 |
| 17 | FOXY BOXXY | ARRASTAE | Botoen %0,41 |
| 18 | IGOR SAN JUAN | ARETXABALETA | Botoen %0 |
| 19 | FLIPIN FOLK | ERMUA-EIBAR | Botoen %0 |
| 20 | ROCK PRIVADO | OÑATI-DONOSTIA | Botoen %0 |
| 21 | THE WET BAND | MUTRIKU | Botoen %0 |
| 22 | BARUA BANDA | ESKORIATZA | Botoen %0 |
| 23 | TUESDAY EVENINGS | DURANGO | Botoen %0 |
| 24 | REVELPHONE | SORALUZE | Botoen %0 |


Army-Arma taldea.


Brankan hirukotea dena ematen.


Bitter Honey laukotea taula gainean.


Army-Armako DJ-a.


Brankan taldea.


Army-Arma seikoteak eszenatokia bete zuen.


Aitor, Bitter Honey.


*Pepi*, Los viernes al ron.


Denis, Brankan taldeko bateria, jo eta su.


BItter Honey-ko Borja.


Usoa Agirre / Maider Arregi

# Estilo ugari; bakoitza berean bikain

Jende gutxi inguratu zela iruditu zitzaigun hasieran, baina gauak aurrera egin ahala inguratu zen jende mordoxka. Ezin falta, noski, kontzerturo etortzen diren Danbakazaleak. Hala ere, oñatiarren falta sumatu genuen, seguru denak **Sharon Stoner**ren diskoaren aurkezpenean zeudela.

Aurreko edizioko musikariak ere ikusi genituen. Hemen izan ziren Los Cretinos taldeko **Jaime eta Barba**, baita **Klakson**eko kideak ere. Oraingoan lasai igo zela esan zigun **Mikel Urtzelaik**; izan ere, aurreko ediziokoko kontzertuan tila hartu behar izan zuen hasi aurretik. Zozketako txarteltxoa ere berak atera zuen, oraindik eskenatokia gustatzen zaionaren seinale.

Iñigo Irizarrek hasi zuen gaua. Izen artistikoari omen eginez rona edan zuen **Pepik**. Hori da izenari men egitea!

**Bitter Honey**ko mutilak izan ziren hurrenak. Goitik behera apain-apain jantzita. 70eko rock and rolla egiten dute eta janzkera ere garai hartakoa ekarri zuten. Estilismoak asko balio du musikan!

Azken moda nahi baduzue, hor dituzue **Danbakako kamisetak**, dotore-dotore jantzteko.

## Azaroaren 28an

- > Foxy Boxxi (Arrasate)
- > Igor San Juan (Aretx.)
- > Norman (Eibar)
- > Hilbete (Durango)

HAN IRITZIA EMAN DIGUTE

**Mikel Urtzelai**
Durango

"Danbaka moduko lehiaketak ekimen onak dira taldeak promozionatzeko. Gaur Antzuolako *Pepi* ikustera etorri naiz, laguna da eta. Botua berari eman diot, izan ere, lehen aldia da eszenatokira igotzen dela eta maila bikaina erakutsi du taula gainean".

**Ainhoa Fernandez**
Eibar

"Ahal dudan guztietan etortzen naiz kontzertuak ikustera. Aukera paregabea da taldeendako. Aurten maila bikaina dago; igarri da esparrua Debabarrenera eta Durangaldera zabaldu izana. Gaur Brankan ikustera etorri naiz, oso originalak dira bere estiloan".

**Nerea Nuñez**
Antzuola

" Ikusleondako aukera paregabea da talde berriak ezagutzeko eta estilo ezberdinak gau berean entzuteko. Danbakako aurreko ediziotako kontzertuetan ere izan nintzen. Maila altuko taldeak daude aurten eta kontzertutik kontzertura igotzen doa".

**Juha Matti Hiestanen**
Finlandia

"Finlandian ere egiten dira horrelako lehiaketak baina ez dute bateratzen horrenbeste estilo ezberdin. Maila izugarria da eta ekimen hau oso interesgarria dela uste dut. Gehien gustatu zaidan taldea Bitter Honey. Abeslariak ahots paregabea dauka".

**Oscar Lopez**
Soraluze

"Danbakan askotan izan naiz. Urtetik urtera hobetzen ari den lehiaketa da, lan paregabea egiten da. Orain arte gehien gustatu zaidan taldea Scam izan da. Dena den, oraindik beste 12 talde geratzen dira eta ikusteko dago gertatuko dena".

# 270 €-rainoko alokairuko etxebizitzak*

## "la Caixa"ren Modu oneko etxebizitzak

"la Caixa" Gizarte Ekintzaren programen bitartez, premia duten pertsonen bizi-kondizioak hobetzeko lan egiten dugu. Hori dela eta, Modu oneko etxebizitzak programak alokairurako 3.000 etxebizitza eraikitzea aurreikusten du. Ordaintzeko moduko errentak izango dituzte, eta dagoeneko 1.084 eman dira.

**Arrasaten**, 148 etxebizitzako sustapen bat eraikitzen ari gara. 35 urtetik beherakoentzat, 65etik gorakoentzat, genero-indarkeriaren biktimentzat, mugikortasun murriztu iraunkorra duten pertsona minusbaliatuentzat eta guraso bakarreko familientzat dira etxebizitzok.

Zatoz "la Caixa"k Arrasaten dituen bulegoetako batera, eta egin eskaera.




Obra Social "la Caixa"

MODU ONEKO ALOKAIRUAK ZURETZAT



*Kontsultatu baldintzak www.laCaixa.es/ObraSocial web orrian edo 943 30 63 89 telefono-zenbakian

**MUSIKA** > SU TA GAR TALDEAREN HEAVY KONTZERTUA

# Hasieretako kanta mitikoak eskaini zituzten Su Ta Garrekoak Bergaran

Zaleen gozamenerako aspaldian jo ez dituzten kantak eskaini zituzten gitarra elektrikoa zein akustikoa eta pianoa tartekatuz


Sorpresaz eta sentimenduz betetako kontzertua izan zen zapatuan Su Ta Gar taldeak eskaini zuena. JOSETXO ARANTZABAL

IMANOL SORIANO > BERGARA
Arrasateko La Txusma taldea izan zen zapatuko kontzertua ireki zuena. *Nos gusta el rock & roll* disko berria aurkeztu zuten, hasiera indartsuarekin, emanaldi guztian zehar mantendu zena. *Patrullas del aberno* eta *Rock & Roll* kantuak izan ziren zaleak dantzan jarri zituztenak.

**KANTU MITIKOAK**
Eskenatoki gainean, "20 urte" zioen kartel bat jarrita zegoen bateriaren azpian. Hamarrak jotzeko hamar minutu falta zirenean igo ziren Su ta Gar taldekoak taula gainera. Txalo artean hartu zituzten Bergarara gerturatu ziren jarraitzaileek.

Indartsu ekin zioten *Begira* kantuarekin, jarraian etorri ziren *Fagozitozia* eta *Etsi gabe* kantuak. Lehenengo hiru abestiak jarraian jo ondoren, eskerrak eman zizkieten gerturatutako guztiei. *David eta Goliath* kantua jo zuten bitartean, lehenengo ilaretako zaleak tximak astintzen zebiltzan. Gaueko lehenengo sorpresa heldu zen: *Hitz margotuak* kanta gitarra akustikoaz lagunduta jo zuten Aitor Gorosabel eta Xabi Bastidak. Jarraian, abesti *kañeroagoa* eskaini zuten: *Homo Sapiens?* diskoko *Geroaren Hazi Heziak*.

Kontzertua aurrera zihoan eta aretoan giro ezin hobea zegoen. *Basamortuetako zalduna* eta *Jo Ta Ke* kantuekin gozatu zuten zaleek gehien; azken abesti hori ukabila altxatuta zutela abestu zuten *suta*-zaleek. Zaleen oihuekin *Rotaflexa garraxika* entzun ondoren, kantu lasaiago baten momentua heldu zen, *Itxaropena*. Anbotoko Mariri gurtza egin ondoren kamerinoetarako bidea hartu zuten eibartarrek, txalo zaparrada artean. Ez zituzten zaleak denbora luzez itxoinarazi eta segituan bueltatu ziren. Gaueko bigarren sorpresa. Aitor Gorosabel inoiz atera ez duen pianoa jotzen entzun genuen. *Nazka* eta euskal preso eta errefuxiatuei eskainitako kantua jo ondoren agurtu ziren. Zaleek gehiago nahi zuten eta beste kantu bat eskatu zioten. Bat beharrean bi jaso zituzten: *Homo Sapiens* eta *Arbasoen mendekua*. Berriz agurtu ziren eta taldearen laguntzaileek instrumentuak jasotzeari ekin zioten. Bazirudien kontzertua amaituta zegoela, baina zaleek gogotsu oihukatu zuten beste bat eskatuz eta eibartarrak berriz ere azaldu ziren agertokian. Gorosabelek pianoz lagunduta *Haika mutil* jo zuen eta gero *Hator, hator* eta *Zure atzetik* kantuarekin agurtu ziren.


Egoitz, Mikel eta Iñigo, barikuko aurkezpenean. MAIDER ARREGI


Xagu tabernan zale asko batu ziren babesa emateko. MAIDER ARREGI

**DISKOAREN AURKEZPENA** > SHARON STONERREN BIGARREN DISKOA KALEAN

# Sharon Stoner, profeta etxean

Oñatiarrek barikuan aurkeztu zuten '13 Taupada' diskoa. Gauean kontzertua eskaini zuten jarraitzaile sutsuendako

MAIDER ARREGI > OÑATI
Zazpi urte daramatza taldeak jo eta su, baina hasierako ilusioa eta gogoa mantentzen du. Disko berriarekin gustura daude hiru oñatiarrak: "Irailetik geneukan entzunda eta emaitzarekin oso gustura gaude". Jende asko elkartu zen aurkezpenean eta taldekideak pixka bat urduri zeudela esan ziguten. Ez zuten ez lan makala izan diskoak sinatzen.

**13 TAUPADA**
Bigarren diskoa, lehen diskoa baino ilunagoa da. Hala ere, estilo ezberdinak uztartzen ditu. Adibidez, *Juarez Town* abestiak ukitu ezberdina dauka. Mikel Zarketa gitarra-joleak esan digu gustatzen zaiela ukitu mexikarra akustikoetan. Stonerra egiten dute, baina ez zaiela estiloa markatzea gustatzen nabarmentzen dute: "Stonerra egiten dugu, baina ez zaigu estilo bakar batean finkatzea eta mugak jartzea gustatzen. Taldekide bakoitzak musika ezberdina entzuten du eta iturri ezberdinetatik edaten du taldeari ukitu berezia emanez".

**DANBAKAKO LEHEN IRABAZLEAK**
Danba lehiaketaren gaineko oroitzapen ona gordetzen dute. Zuzenekorako toki aparta eta aukera bikaina dela azpimarratu digu Zarketak: "Esperientzia ona eta oroitzapen ona gordetzen dugu. Lehiaketa irabazteak sekulako ilusioa egin zigun".

**DISKOA SALGAI**
Guztira, 13 abesti batzen ditu diskoak, *13 Taupada*. Metafora antzeko bat egin dute. Taupada bakoitza bizitza aurrera doan seinale dela diote eta euren kasuan abesti bakoitza taupada bat dela. Grabaketa Bonberenean egin dute Karlos Osinaga, *Txap*ekin. Gustura daude emaitzarekin eta lortutako soinua oso naturala dela diote. "Zuzeneko baten oso antzekoa da, musika gordina da diskokoa".

Gor diskoetxeak banatuko du diskoa. Ohiko dendetan (12 euro) eta tabernetan (10 euro) jarriko dute salgai.

Orain, neguko agenda gainezka dute. Aurrera begira ere hirugarren disko bat ateratzeko asmoa badaukate. Izan ere, abesti berriak gordeta dituzte.


Argazkian, Mikel Zarketa gitarra-jolea diskoa sinatzen. MAIDER ARREGI

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Estreinatu gabeko etxebizitza salgai plaza ondoan. Deitu ezazu telefono honetara: 657 70 94 20.

**Arrasate.** 75 metro koadroko etxebizitza salgai San Andresen, Bañez Doktorea kalean. Berrikuntzak behar ditu. 162.273 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 629 10 41 31.

BERGARA

**Basalgo auzoan baserria salgai lursailarekin.**

**610 73 65 40**

**Bergara.** Apartamentua salgai San Antonion. Sukaldea, egongela, logela bat, komuna, balkoia eta trastelekua. 46 metro koadro. Guztiz berritua eta jantzia, bizi izatera sartzeko moduan. 152.000 euro. Prezio negoziagarria eta ordaintzeko erraztasunak. Deitu ezazu telefono honetara: 635 70 49 74.

**Ezkarai.** Bi logela, berogailua, igogailua, garaje itxia eta urbanizazioko igerilekua. Jantzia. Valdezkaraitik 10 kilometrora. Deitu ezazu telefono honetara: 650 60 12 14.

**Oñati.** 90 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Guztiz jantzia. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela, ganbara eta garajea. Oso eguzkitsua. Prezioa adosteko. Deitu ezazu telefono honetara: 680 44 95 55.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aramaio.** 70 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan Ibarran. Bi logela. Garaje itxiarekin. Deitu ezazu telefono honetara: 656 73 13 21.

**Arrasate.** Erguinen etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzia. Eguzkitsua. Deitu ezazu telefono honetara: 617 17 18 23.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan urtarriletik aurrera unibertsitate ondoan. Hiru logela. Berogailuarekin. Deitu ezazu telefono honetara: 653 72 55 85 edo 620 31 33 72.

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Berogailu zentrala dauka. Igogailua. Deitu ezazu telefono honetara: 605 77 51 71.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. Hiru logela eta bi komun. Berogailuarekin. Ganbara. Igogailua. Eguzkitsua. Deitu ezazu telefono honetara: 628 26 65 77.

**Bergara.** Herri erdian dagoen hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Deitu ezazu telefono honetara: 667 31 37 45.

**Oñati.** 100 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan Ugarkalde auzoan. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela eta terraza. Guztiz jantzia. Oso eguzkitsua. Deitu ezazu telefono honetara: 645 71 98 84.

**Oñati** Etxebizitza hileka errentan, udan izan ezik. Olakua auzoan. Bi logela. Oso egokia etxean obrak badituzu, e.a. Deitu ezazu telefono honetara: 660 40 06 75.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan erdigunean. Bi edo hiru logela. Presazkoa. Deitu ezazu telefono honetara: 636 25 56 68.

**Arrasate.** Logela edo etxebizitza txikia hartuko nuke errentan, kontratuarekin. Mutil arduratsua naiz, lan finkoarekin. Deitu ezazu telefono hauetara: 943 77 07 01 edo 656 66 49 75.

**Bergara.** Berogailudun eta telefono lineadun etxebizitza hartuko nuke errentan. Deitu ezazu telefono honetara: 686 52 15 98.

**Debagoiena.** Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke errentan. Antzuolan bada hobeto. Presazkoa da. Deitu ezazu telefono honetara: 617 88 20 93.

**Debagoiena.** Etxea errentan hartu nahi nuke, pertsona batentzako. Deitu ezazu telefono honetara: 653 70 84 09.

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguenerarte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Debagoiena.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Deitu ezazu telefono honetara: 659 35 09 30.

### 105. ETXEAK OSATU

**Antzuola.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu ezazu telefono honetara: 607 59 18 49.

**Arrasate.** Etxea osatzeko pertsona bat behar dugu Arrasateko erdialdean, unibertsitatetik 5 minutura. Sukaldea guztiz hornituta, logelak eta sala handiak, bi bainugela. Wi-fia. Eguzkitsua. Deitu ezazu telefono hauetara: 699 28 99 06 edo 678 76 28 22.

**Bergara.** Gela ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Erdigunean. Eguzkitsua. Deitu ezazu telefono honetara: 627 75 81 94.

**Gasteiz.** El Pilar auzoan logela errentan ematen da neskeendako, sukalderako eta bainugelarako eskubideekin. Gas naturalezko berogailua, bitrozeramika, hozkailua, garbigailua, etxebizitza osoa kanpoaldeko bistekin, egoera ezin hobean. 220 euro etxeko gastoak kenduta. Deitu ezazu telefono honetara: 630 74 24 95 edo 656 93 33 05.

**Unibertsitateko** irakasleak Arrasaten edo inguruan logela hartuko luke errentan abendutik uztailera bitartean. Deitu ezazu telefono honetara: 615 79 49 51.

## 2/ GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan Arimazubi plazan. Deitu ezazu telefono honetara: 635 73 75 17.

**Bergara.** Garajea ematen da errentan Burdiñaten. Deitu ezazu telefono honetara: 655 73 10 51.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Emakume euskalduna behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 55 26 edo 695 78 06 60.

BERGARA

**Hileta zerbitzuetarako langilea behar da. CV-a aurkeztu martitzen-eguenak 09:30-11:30 Amillaga 39, Bergara**

**Bergara.** Esperientziadun andrea etxeak orduka garbitzeko gertu. 943 76 08 76 edo 616 78 35 57.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna 18:00etatik aurrera edozein lan egiteko prest. Deitu ezazu telefono honetara: 650 06 01 35.

**Arrasate.** Emakume euskalduna garbiketako lanak egiteko prest. 670 42 21 08.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu edozein lanetarako. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakumea gertu etxeko lanak egin edo haurrak zein nagusiak zaintzeko. 646 50 83 59.

**Arrasate.** Mutil arduratsua gertu goizetan taberna, elkarte edo atarteak garbitzeko. 943 77 07 01 edo 666 21 88 95.

**Arrasate.** Neska prest edozein lanetarako arratsaldez. 636 91 92 83.

**Arrasate.** Emakume euskalduna astean bi edo hiru aldiz lan egiteko gertu. (2 orduz). Rosi. 943 77 16 01 edo 672 20 36 82.

**Bergara.** Edozein motatako lanak aurrera eramateko gertu egongo nintzateke. Yair. 699 63 12 02.

**Bergara.** Emakumea prest garbitasun lanak egiteko. Deitu ezazu telefono honetara: 628 23 50 55.

**Bergara.** Erizain laguntzailea ikasten dabilen neska bat gertu haurrak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Esperientzia. Deitu ezazu telefono honetara: 618 12 07 44.

**Bergara.** Garbiketa lanak egiteko eta ume zein adineko pertsonen zaintza lanak burutzeko gertu nago. Graciela. 699 63 12 02.

**Bergara.** Neska gertu etxeko lanak egiteko eguerdira bitartean. 616 12 56 29.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan lo eginez, astelehenetik ostiralera. 628 40 58 27.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan lo eginda ere bai. 660 78 00 73.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan lo eginda ere bai. 688 68 13 63.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edo orduka egingo nuke lan. 659 57 93 89.

**Debagoiena.** Erizaintza laguntzaile esperientziaduna nagusiak, gaixoak edo umeak zaintzeko gertu arratsalde eta gauetan. 943 76 53 43 edo 666 76 81 32.

**Debagoiena.** Erizaintzako teknikari laguntzailea pertsona nagusiak, umeak eta gaixoak zaintzeko gertu. 943 76 53 43 edo 629 75 00 30.

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu edonon lan egiteko. Gidabaimena dut. 697 66 79 37.

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan lo eginda. 943 08 15 39 edo 699 34 86 88.

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaindu edo atari, etxe zein baserriak garbitzeko. Autoa daukat. 666 21 88 95 edo 943 77 07 01.

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu. Garbitasun lanak: etxebizitzak edo atariak. 669 12 70 98.

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Etxe garbiketan edo umeak edo adinekoak zaintzen jardungo nuke. Orduka ere lan egingo nuke. Deitu ezazu telefono honetara: 659 35 09 30.

**Debagoiena.** Soldadura lanak egingo nituzke. Deitu ezazu telefono honetara: 677 17 43 75.

**Debagoiena.** 39 urteko gizonezkoa egun erdiko lan baten bila dabil, taberna batean edo bestelako lan batean. Iñaki. 608 49 89 93.

**Debagoiena.** Lana gustura egingo nuke arratsaldetan sukaldari laguntzaile, garbitzaile edo antzeko lan batean. 659 23 01 85 edo 943 79 72 99.

**Oñati.** Umeak zaintzen ditut orduka (egubakoitz arratsaldegau eta asteburuan). Bazkari edo afariren bat baduzu, deitu. Esperientzia handia, irakaskuntzan diplomaduna naiz. Deitu ezazu telefono honetara: 651 70 85 13.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** DBHko lehenengo mailarako eskola partikularrak hartuko nituzke. 669 61 52 99.

**Bergara.** DBH1eko ikasleari eskola partikularrak emateko gertu dagoen norbait behar da. 943 76 21 79 edo 658 70 73 17.

**Irakaslea.** 1. batxilergoko ikasle bati matematika eta ingeleseko eskolak emateko irakaslea behar dut. 627 34 92 27.

### 502. EMAN

**Aretxabaleta, Eskoriatza.** Eskoriatzan ikasten dudan neska bat naiz eta eskola partikularrak emateko prest nago. LH eta DBHko 1. eta 2.mailetan. 666 38 57 97.

**Arrasate.** Injinieru teknikoa DBHko zein batxilergoko klase partikularrak emateko prest. Informazio gehiago. 685 77 85 60.

**Arrasate.** Irakasleak eta psikologoak lehen hezkuntzako eskola partikularrak emango lituzke. Informazio gehiagorako. 645 73 04 69.

**Bergara.** Ingeles irakasle ezaguna berriro eskolak emateko gertu. Eskola laguntza edo azterketak gertatzeko. Bolu. 616 12 56 29.

**Bergara.** Ingeles irakaslea eskolak emateko gertu. Eskolako lanak egiteko edo ingeles azterketak gertatzeko laguntza eskolak. 616 12 56 29.

**Bergara.** Neska euskalduna DBHko 3. eta 4. mailetako eskola partikularrak emateko gertu. 675 70 17 63.

**Ingelesa.** Esperientzia handiko neskak ingeleseko eskolak ematen ditu. Maila guztiak. Arrasate edo inguruetan. 15 euro orduko. 943 25 05 79.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Basurdeak** salgai Orozkon. 678 72 75 72.

**Txakurkumeak.** Artzakur edo mastin arrazako txakurkumeak salgai. 647 41 93 63.

### 702. EROSI

**Basurde** ar helduak erosiko nituzke. 678 72 75 72.

### 703. EMAN

**Txakurkumea** opari egiten da, arraza txikikoa. Etxerako osoa egokia. 605 75 42 65.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**'Brain training'** - berri-berria salgai. Nintendo DSrako. Estreinatu gabea. 617 13 17 51.

**Argazki kamera** salgai. Olympus 790 SW. 7.1 M, 3xZOpt, Shock+Waterproof, FaceDetection…Berri-berria eta garantiarekin. 200 euro. 660 43 64 29.

**Errepideko bizikleta.** Giant TCR. Neurria: M. Campagnollo Veloce taldea. Campagnollo Scirocco gurpilak. Triatloiko akoplea. Kilometro-kontagailua. Beste plater joko bat eta botak oparitzen ditut. Ez erabiltzeagatik saltzeko asmoa. 600 euro. 645 00 81 41.

**Eskiak.** Fischer markako eta 1,70 neurriko eskiak salgai. 120 euro. 669 83 60 53.

**Eskiatzeko botak.** 41-42 zenbakiko eskiatzeko botak salgai. Behin erabiliak. 90 euro. 669 83 60 53.

**Eskiatzeko botak.** Atomic etxekoak. 37-38 zenbakia. Berogailurako instalazioarekin. Oso egoera onean, behin erabiliak. 100 euro. Astegunetan 22:15etik aurrera deitu. 667 94 52 12.

**Eskoriatza.** Mendiolan 2007ko irailean botatako txikitu gabeko su-egurra salgai: pagoa, haritza, lizarra eta gaztainondoa. 17:00etatik aurrera. Oskar. Deitu ezazutelefono honetara: 650 86 76 19.

**Fijazioak.** Dynastar markako Look eskiatzeko fijazioak salgai. Emakumezkoendako bereziak. Oso egoera onean. 100 euro. Astegunetan 22:15etik aurrera deitu. 667 94 52 12.

**Hozkailua,** garbigailua eta zazpi erradiadore ditugu saltzeko. Deitu ezazu telefono honetara: 669 28 20 64.

**Lehorgailua.** Arropa lehortzeko aparailu elektrikoa saltzen da. Deitu ezazu telefono honetara: 670 85 85 41.

**Ordenagailurako jokoak.** Jatorrizko lau CD joku: Scooby Doo, Jurasic Park, "La leyenda del dragón" eta Spell Force. Dibertigarriak eta buruko estrategia lantzen dutenak. Egoera ezinhobean. Bakoitzak 6 euro eta denak 20 euro. Deitu ezazutelefono honetara: 679 74 00 61.

**Snowboard taula.** Neskentzako bi snowboard taula saltzen dira. Bat Rossignol Reserve modeloa. Fijazioak ere Rossignol. 148 cm. Estreinatu gabea. Bestea, Rossignol Dazer modeloa. Fijazioak ere Rossignol. 147 cm. Erabilitakoa. 615 70 18 23.

**Trialeko** bi bizikleta saltzen dira. Monty markakoak. Ia berriak. Bakoitzak 250 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 943 79 54 21.

**Txapazko bi hagun** salgai. R-16. Ford Mondeo eta Focus kotxeendako baliagarriak. 30 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 655 70 16 44.

### 802. EROSI

**Basalurrak** erosiko nituzke Bergaran. 669 17 09 51.

**Umeendako arropak.** Bigarren eskuko umeendako arropak erosiko nituzke. Saltzeko gertu dagoenak dei dezala ondoko telefonoetara: 650 62 12 94 edo 943 08 22 60.

### 804. HARTU

**Sehaska** hartu edo erosiko nuke. 650 96 23 08.

**Umearendako bizikleta** hartu edo erosiko nuke. Bi urteko umearentzat modukoa. Deitu ezazu telefono honetara: 650 96 23 08.

### 806. GALDU

**Jertse grisa** galdu nuen Seber Altube eta Erdiko kale inguruan. 3 urteko umearena da eta kremailera eta txanoa ditu. Etiketan Haizea Z izena darama. Aurkitu duenak mesedez deitu zenbaki honetara: 669 13 28 50.

**Telefono mugikorra** galdu nuen Oñatin. Nokia 6500 modeloa. Norbaitek aurkitu badu deitu telefono honetara. 943 71 80 85.

### 807. AURKITU

**Aretxabaleta.** Astelehenean, azaroak 10, telefono mugikorra aurkitu nuen Murugain eta Izurieta arteko mendibidean. Galdu duenak deitu zenbaki honetara: 620 06 35 92.

**Aretxabaleta.** Ezkontza eraztuna aurkitu nuen urriaren 25ean, zapatua. "Tere-Leonardo" ipintzen du. Jabeak zenbaki honetara dei dezake: 626 60 37 03.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Abeslaria.** Rock abeslaria talde bila dabil. Deitu ezazutelefono honetara: 657 02 15 96.

## ETXE AGENTZIAK

**Jar ezazu hemen zure publizitatea**
**943 25 05 05 publi@goiena.com**

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 65 m², berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 70 m², oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Zubiaurre, 82 m² + 42 m², ondo.
- Aranerreka, 87 m², oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 m², eraikuntza berria.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m², berritua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 m². Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Ibargarai 74 m². Ondo. Garajea aukeran.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Matxiategi 61 m². Prezio ona. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- San Lorentzo. Berritua. Prezio ona.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Artekale 62 m². Berritua.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 m². Eguzkitsua.
- Ozaeta 70 m². Oso ondo.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Etxe berriak 178 m². Duplexak eta adosatuak.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Oñati:**
- Kale Zaharra. 62 m². Terrazarekin. Ortua.
- Moyua. 75 m². Oso aukera ona.

## gazte zerbitzuak

**BEKAK**

**> Ikerketa eta prestakuntza. Eusko Jaurlaritza.** Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Tesi-proiektuetarako ekintzak burutzen diren bitartean atzerrian egonaldi laburrak egiteko bekak. Epea: egonaldia hasi baino bi hilabete lehenago.

**LANA**

**> Udaltzaina.** Bergarako Udala. Oposizio bidezko 4 lanpostu eta lanpoltsa osatzeko lehiaketa.

**IKASTAROAK**

**> Argiketariak.** IES Hernani. Instalatzaile argiketari izateko oinarrizko ikastaroa langabeentzat. Ikastaroa 2009ko urtarrilaren 12an hasiko da eta maiatzaren 22an bukatuko da. Epea: plazak bete arte.

**> Geriatria.** Saiamen eta Sarea Fundazioa. Errenterian Geriatria laguntzaile ikastaroa. Epea: azaroaren 24a.

**LEHIAKETAK**

**> Komikiak.** Ibarrako Udala eta Galtzaundi Euskara Taldea. Ibarra Galtzakomik 2008 komiki-lehiaketa. Epea: azaroaren 26a.

**> Argazkilaritza.** SOS Arrazakeria. Kirola Integrazio eta Bitarteko IV. Argazki Lehiaketa. Epea: abenduaren 9a.

**EKINTZAK**

**> Kontzertuak.** Gaztemaniak. Barrence The Whitfield + Los Sfinters azaroaren 19an Gasteszenan, 20:30ean. Sarrerarik lortu nahi? 900 11 01 11 telefonora deitu besterik ez duzu egin behar.

**> Unibertsitate aholkularitza.** EHU-UPV. Euskal Herriko Unibertsitatearen aurkezpena Gipuzkoako hainbat eskualdetan azaroaren 19tik abenduaren 10era. Arrasate, Azpeitia, Andoain, Tolosa, Irun, Eibar, Zarautz, Legazpi, Renteria, Donostia eta Beasain.

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 17



**'Goiena Magazinea' egunero, Goiena Telebistan**
**19:45**
Debagoienean eta Debagoienetik kanpo gertatzen denaren jarraipena egiten dute egunero, Goiena Telebistako *Magazinean*. Guztia, 19:45ean.

**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Erlo klip.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikuskizuna.
**15:45** Erreportajea.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Danbaka: Lord wich/Haby holden.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Golb tb.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Erreportajea.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 18



**Kirol aurkezle den Ana Ramos izango da 'Ilunpean'-en**
**21:45**
Eibartarra sortzez, egun Algortan bizi da Ana Ramos. *Teleberri*-ko kirolen ataleko aurkezlea da; dena den, aurrez kirol kazetari izana da.

**13:15** Marrazki bizidunak: Katagorriak.
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa: hanburgesak.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Solaskide.
**16:20** Erloklip.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Danbaka: Los viernes al ron
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean: Ana Ramos.
**23:00** Ikuskizuna.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 19



**Umeen elikadura hizpide gaurko 'erreportajean'**
**14:45**
Oñatiko Errekalde Herri Eskolara jo du oraingo honetan Julen Iriondok erreportajea egitera. Bertako umeen elikadura izango da gaia.

**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Gure saltsan.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Golb tb.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Zaharrak berri.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**22:45** Perretxikoen mundua.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguena, 20



**> 'Berbaire' saio berezia Goiena Telebistan**
**20:30**
Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako *Berbaire* saio berezia eskainiko dute eguenean. Hitzordua, 22:15ean duzue Goiena Telebistan.

**13:15** Marrazki bizidunak: Katagorriak.
**13:45** Perretxikoen mundua.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikusmira.
**15:45** Ikuskizuna.
**16:15** Zaharrak berri.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Danbaka: Bitter honey.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Berbaire.
**23:15** Erreportajea.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 21



**> 'Katagorri' marrazki bizidunak**
**17:15**
Egubakoitzero, 17:15ean, Katagorri marrazki bizidunak eskainiko ditu Goiena Telebistak. Etxeko txikiek tarte on bat pasatzeko aukera bikaina, beraz.

**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Gure saltsan.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Danbaka.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Zarzuelarako sarrerak zozketara Arrasate Irratian**
**10:30**
Izaskun Murgia elkarte lirikoak prestatutako *El Barberillo de Lavapies* Barbieriren zarzuela ikustera joateko zortzi sarrera dituzte irratian. Interesa baduzu, deitu ezazu 943 25 05 05 telefonora.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua. Eguraldi kontuak Bixente Pagoagaren eskutik; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta, tertulia...) *Zaharrak berri* saioan, eta sexologia kontuak, besteak beste.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera.
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Ilunpean.
Teknoberriak.
Igo Euriborrera!
Kantaka.
Zaharrak Berri.
Astearen errepasoa.
Zozketak.
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 telefono zenbakia edo *irratia@goiena.com*).
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia.
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.).
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## asteko hitzorduak

### Ospakizuna



OÑATI
**> Santa Zeziliaren omenezko kalejira egingo dute musika eskolakoek**
Santa Zezilia, musikarien zaindaria omentzeko, musika kalejira egingo dute Jose de Azpiazu eskolako ikasleek eguenean, hilak 20, plazatik hasita, 17:15ean. Gaztelekuan txokolate-jana izango dute gero, 18:30ean.

### Dantza



ARETXABALETA
**> Dantza libre topaketak egingo dituzte eguenean Jaiki elkartekoek**
Hilabetero dantza libre topaketak antolatzen ditu Jaiki elkarteak, eta oraingoa eguenean, azaroak 20, izango da. Isabel Alzolak gidatuko ditu eta kuartel zaharrean izango da ekitaldia, 18:00etatik 20:30era.

### Zinema



ELGETA
**> 'La fiera de mi niña' film klasikoa emango dute etzi, eguaztena**
*La fiera de mi niña* (Howard Hawks, 1938) film klasikoa emango dute etzi, eguaztena, Espaloia antzokian, 21:30ean. Cary Grant eta Katharine Hepburn dira protagonistak. Inoizko komedia onenetarikotzat dute adituek.

kuxkuxeroa



Larraitz Zeberio

# Albiste txar gehiegi azken egunotan

Gaur hasten dugun astea, azaroko hirugarrena, aurrekoa baino hobea izango al da! Albiste txarrak ematea ez da inorendako gustuko lana eta aurreko astean gehiegi eman genituen, zinez.

Kaleratzeak, erregulazio espedienteak, porrotak... **Arcelor-Mittal**, **Tesa**, **Fundiciones Leniz**, **CEUR** eta **Lekber** izan genituen hizpide, besteak beste.

Azken boladan ekonomiak poztasunerako arrazoi gutxi ematen badizkigu zer esanik ez errepideak. Eguen arratsaldeko istripu larriak

**"Albiste txarrak ematea ez da atsegina eta aurreko astean gehiegi eman behar izan ditugu"**

24 urteko neska baten bizia eraman zuen aurretik. Kolpe gogorra, benetan, Bergaran.

Asteak utzi digun albiste pozgarri bakarrenetarikoa Irungo **Real Union** taldeak egindako marka izan da, zalantzarik gabe. Bigarren B mailako taldeak –milioi eta erdi euroko aurrekontua– zein eta **Real Madril** handia –400 milioi euroko aurrekontua– kanporatu du Errege Kopatik.

Gustuko dut albiste hori. Ez bakarrik irundarra naizelako, baizik eta txikiak handiari errepaso on bat ematea beti egiten zaidalako berezi-ki atsegina.

Ea albiste onak kirol mundutik ez ezik bestelakoetatik ere etortzen zaizkigun gaur hasiera ematen diogun aste honetan. Horrela izango al

((112))
SOS DEIAK

zorion agurrak



ANE
**Alazne Mujika**
Azaroaren 5ean 11 urte betetzen ditu. Zorionak denon partetik.



ARRASATE
**Maren Alonso Lopez**
Azaroaren 13an 2 urte betetzen ditu. Zorionak poxpolintxo, zure bigarren urtebetetzean! Patxo handi bat Beñat, aitatxo eta amatxoren partetik!



ESKORIATZA
**Iñaki Kortazar**
Azaroaren 13an 25 urte betetzen ditu. Zorionak *Iña*! Zeuria be heldu da! je, je. Patxo potolo potolo bat danon partez. Gaurko traguak zeure kontu! Muuuaaakk.



ARRASATE
**Jone Gorosabel**
Azaroaren 13an 5 urte betetzen ditu. Zorionak! Sanvi Txikiko lagunen partetik.



OÑATI
**Maider Galdos**
Azaroaren 14an 6 urte betetzen ditu. Zorionak polittori! Ondo pasa zure urtebetetze egunian eta patxo handi bat etxekuen partez!



OÑATI
**Leire Derteano**
Azaroaren 14an. Zorionak guapixima!! Ondo ondo pasau zure eguna eta aste bukaeran zelebrauku danok. Musu handi bat zure kuadrillian partetik!



ARAMAIO
**Nagore Muñoz**
Azaroaren 14an, 18 urte betetzen ditu. Musu bat potxola familia guztiaren partetik eta bereziki osaba Jabierren partetik!



BERGARA
**Maren Leston**
Azaroaren 15ean 3 urte betetzen ditu. Etxekoen partetik musu handi bat!



BERGARA
**Irati Olabarria**
Azaroaren 15ean. Zorionak guapisima! Ondo ondo pasa zure urtebetetze egunean! Muxu mordo bat familiakoen partez!



ARETXABALETA
**Ariane Alcalde Zeziaga**
Azaroaren 15ean, urtebete. Zorionak eta musu bat familiaren partetik, eta bereziki Julen anaiaren partetik.



OÑATI
**Amaia Olariaga**
Azaroaren 15ean. Zorionak ta urte askotako! Ondo pasau!



ARRASATE
**Kepa Lopez Lasa**
Azaroaren 15ean, 3 urte betetzen ditu. Etxeko guztien partez: Zorionak txapeldun!!



BERGARA
**Ane Mujika Agirre**
Azaroaren 15ean 3 urte betetzen ditu. Zorionak etxekoen partez!!!!



OÑATI
**Oier Yaniz Ortigosa**
Azaroaren 15ean, 6 urte betetzen ditu. Zorionak Oier, aitatxo, amatxo eta Ibaien partez zure seigarren urtebetetzean. Musu handi bat!



ARRASATE
**Julen Parra Matilla**
Azaroaren 16an. Zorionak potxolo, zure bigarren urtebetetzean! Musu handi bat laguntxoen aldetik, bereziki Beñat eta Maren-en partez.



BERGARA
**Andoni Gabilondo Iturriaga**
Azaroaren 16an 4 urte betetzen ditu. Zorionak etxekoen partez!



ARRASATE
**Malen Altube**
Azaroak 17an, 4 urte betetzen ditu. Zorionak Malentxo. Egun zoragarria pasa dezazula! Gurasoen partez, musu handi bat.



OÑATI
**Xabier Anduaga**
Azaroaren 18an 5 urte betetzen ditu. Zorionak Xabier! Familia guztiaren partez.



OÑATI
**Alaitz Altzelai Uribarren**
Azaroaren 19an 28 urte betetzen ditu. Zorionak potxola! Ondo ondo pasau zure urtebetetze eguna eta musu handi bat. Ima



BERGARA
**Alazne Mujika**
Azaroaren 20an 7 urte betetzen ditu. Zorionak denon partetik.



ARRASATE
**Haritz Ezpeleta**
Azaroaren 20an 12 urte betetzen ditu. Zorionak etxekoen partetik. Aupa portero!



SORALUZE
**Manex Osinaga Arantzeta**
Azaroaren 21ean 4 urte betetzen ditu. Zorionak Aimar eta Maddiren partez!



OÑATI
**Irati Olariaga**
Azaroaren 21. Zorionak ta urte askotako! Ondo pasau! Preziosa!



ESKORIATZA
**Esteban Arrieta**
Azaroaren 22an, 84 urte betetzen ditu. Zorionak aitona! Etxeko danon eta bereziki birloba Martxelen partez.



ARRASATE
**Xabat Otxandiano**
Azaroaren 22an. 5 urte betetzen ditu. Zorionak! Dagoeneko bost urte. Segi segi gorutze....... Patxuek etxekuen partez.



BERGARA
**Erik eta Idoia Herran Suinaga**
Erikek azaroaren 13an 8 urte eta Idoiak 12 urte azaroaren 12an. Zorionak! Maitane, Alazne, Aner eta Axier-en partetik.



BERGARA
**Irati Albisua Moreno**
Azaroaren 16an 6 urte betetzen ditu. Zorionak etxekoen partetik.



BERGARA
**Josune Ena Zabaleta**
Azaroaren 14an 36 urte betetzen ditu. Zorionak amatxo! Maitane, Alazne eta Jon-en partez



ARRASATE
**Jone Martinez**
Azaroaren 14an. Zorionak Jone! Egun ona pasau ta zorte on examiñetan! 17 musu handi Danimarkatik!



ARRASATE
**Ane Sologaiztoa Pagaldai**
Azaroaren 16an 4 urte betetzen ditu. Zorionak Anetxo! Patxo handi bat gure etxeko printzesarentzat. Uxue, aitatxo eta amatxo.



BERGARA
**Ainhoa Zenitagoia**
Azaroaren 21 4 urte betetzen ditu. Zorionak "Txispi" zure laugarren urtebetezean. ondo pasa zure eguna. Musu handi bat amatxo, aitaxo eta familia guztiaren partetik.

## asteburuko albuma



**Moronda eta Lironda pailazoak.** Arkupe kultura etxea gaztetxo eta gurasoz bete zen, zapatuan. Moronda eta Lironda pailazoek barre algara bat baino gehiago eragin zuten. Gainera, hainbat gaztetxo animatu zen taula gainera igotzen, pailazoei laguntzeko.



**AHTren aurkako mendi martxa.** Arrasateko AHT gelditu! elkarlanak antolatuta, 30 lagun inguruk hartu zuen parte. Ikutixoko baserritik gora, Muru mendira joan ziren Aramaioko lanak ikusteko. Suña auzoan egin nahi duten bidezubiko lanak ere ikusi eta salatu zituzten.

## jaiotakoak



**Alaitz Santamaria Lopez**
Aretxabaleta > 3,990 kilo. Azaroaren 12an. Gurasoak: Rufi (Burgos) eta Itziar (Arrasate). Argazkian, Alaitz jaioberria, lotan.



**Arrate Bergaretxe Astigarraga**
Arrasate > 2,500 kilo. Azaroaren 14an. Gurasoak: Ainhoa (Eibar) eta Unai (Arrasate). Argazkian, Arrate jaioberria, amarekin.



**Jon Oregi Lopez de Lacalle**
Bergara > 3,360 kilo. Azaroaren 8an. Gurasoak: Maria (Gazteiz) eta Joseba (Bergara). Argazkian, Jonj aioberria, lotan.



**Julen Altube Garcia**
Arrasate > 3,070kilo. Azaroaren 8an. Gurasoak: Miriam (Arrasate) eta Alfonso (Sestao). Argazkian, Julen jaioberria, amarekin.



**Unai Gorostiaga Muruamendiaraz**
Arrasate > 3,900 kilo. Azaroaren 11n. Gurasoak: Judith (Arrasate) eta Asier (Oñati). Argazkian, Unai jaioberria, amarekin.



**Telmo Aierbe Gomez**
Bergara > 3,088 kilo. Azaroaren 10ean. Gurasoak: Ines (Arrasate) eta Pablo (Eibar). Argazkian, Telmo jaioberria, gurasoekin eta arreba Liarekin.



**Aner Larrea Gantxegi**
Bergara > 3,030 kilo. Azaroaren 10ean. Gurasoak: Maite (Bergara) Aitor (Antzuola). Argazkian, Aner jaioberria gurasoekin.

BABESLEA



IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua
Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

---

OROIGARRIA

### Susana Larrañaga Guillen

*Zu ezagutzia politxa*
*izan da benetan*
*Geroarte potxola!!*
*Muxu haundi bat*



Zure lagunak: Haritz, Onintza, Mikel, Silvi, Maddi eta Paul.
Bergaran, 2008ko azaroaren 17an.

---

OROIGARRIA

### Susana Larrañaga Guillen

*Plaentxitik etorri zinan*
*Gure artera txikitan*
*Kuxkuxera eta pertsona ona*
*Zu zinan bixak batian.*
*Betidanik saltzia ipintzen*
*Ibili za alde danetan.*

*Barria be eragin dozu*
*Askotan gure ahotan.*
*Adibide bat jartzeagaittik*
*Marmokekin egun hartan.*
*Horregaittik zure faltia*
*somauko dogu benetan*



Zure kuadrilakuak.
Bergaran, 2008ko azaroaren 17an.

---

OROIGARRIA

### Susana Larrañaga Guillen

Bergaran hil zen 2008ko azaroaren 13an, 24 urte zituela.

*Aspaldian zeruan*
*aspertuta zeren, nunbait,*
*eta haura animatzeko*
*deittu zaittue.*
*Gure eta zure*
*txikitxuen irribarre*
*bakoitzian eukiko zaittugu.*

ARANZADI ikastola



Aranzadi ikastolakuak.
Bergaran, 2008ko azaroaren 17an.

---

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:
**Arrasate** Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05 / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.
**Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.
**Oñati** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65 **Aretxabaleta:** Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.
**Aramaio**: Kintelena janari denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.
**Elgeta:** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98. **Antzuola:** Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.** Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 90 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **120 euro**. Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 110 euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle Gipuzkoan (CIES).**



---

OROIGARRIA

### Joxe Urteaga

Maripi eta Karmele Batu Banatuko langileen aita

Oñatin hil zen 2008ko azaroaren 16an.

GOIENAk bat egiten du senideen saminarekin.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

Oñatin, 2008ko azaroaren 17an.

---

OROIGARRIA

### Xabat Abasolo Zugasti

*Maitasuna ez da inoiz itzaltzen.*
*Eta inoiz itzaltzen ez delako,*
*gogoan zaitugu.*

Zure aitatxo eta amatxon lagunen partez.
Arrasaten, 2008ko azaroaren 17an.

**Goienkaria**

EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2008-11-17

Ana Ramos > Kazetaria

# "Osasuna taldearekin bizipen asko izan ditut"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

**Ana Ramos eibartarra da joan den urtetik *Teleberri*-ko kiroletako aurkezlea. Aspaldi *Gaur Egun*-en ere ibili zen, baina urte dezente darama, unibertsitatetik irten zenetik, kirol erreportari eta erredaktore lanetan; oso trebatuta dago.**

**Kirol kazetaritzan lan egingo zenuela argi zeneukan?**

Ez dakit, nik uste dut gutxika izan zela. *Euskaldunon Egunkaria*-n Eibar taldearen aurrerapenak egiten hasi nintzen, eta Eibarko *Eta Kitto!* aldizkarian ere kirolaren gainean idatzi nuen. Hala, ETBn lan egiteko aukera izan nuenean kirolak egitea eskatu nuen, orduko trebatuta nengoelako. Gainera, garai hartako ETBko albistegien ildo editoriala ez zitzaidan asko gustatzen, eta pentsatu nuen kiroletan jardunez gero nire pentsaeraren kontrako gauzarik ez nuela esan beharrik izango.

**Zer zara Eibarzalea, Athleticzalea ala *rojilla*?**

Gaitza da zer naizen esatea. Eibarkoa naiz eta Eibar beti jarraitu dut; Athletic ere oso gustuko dut; eta zazpi urtetan Osasuna jarraitu nuen lanagatik. Neskatilatan Realzale amorratua nintzen, baina Osasunarekin gauza asko bizi izan ditut.

**Baina egia da Osasunaren gaur egungo egoera dela-eta, txarto lo egiten duzula?**

(Barre) Ez, lo ondo egiten dut, baina Osasunarekin aspaldian oso kezkatuta nago.

**Zer pentsatu zenuen *Teleberri* aurkeztea eskaini zizutenean?**

Hasieran ezuste handia izan zen, baina gustura nago. Gainera, aspaldi, *Gaur Egun*-en ibili nintzen eta orduan ez nintzen batere eroso egon. Orain, berriz, bai. Uste dut Osasuna UEFAko finalerdietara heldu izanak on egin zidala, aukera eman zidalako gauza desberdinak egiteko.

**Asko aldatu dizu bizimodua aurkezle izateak?**

Kanpotik elkarrizketak egiteko edo ekitaldietan esku hartzeko gehiago deitzen didate, baina bestela betiko antzera nabil. Hori bai, zorte handia daukat ETBn jartzen didaten *look*-a eta nire egunerokoa oso desberdinak direlako. Hala, jendeak kalean ez nau ezagutzen. Hori ondo dago.

**Uzbekistanen ezkontza berezi baten egon zinen...**

Bai, oporretan han geundela *limousine* bat ikusi eta ikustera jo genuen. Kontua da jatetxeko jabeak ezkontzakoekin afaltzera gonbidatu gintuela. Oso ondo hartu gintuzten eta, gainera, eskerroneko diskurtso bat eman behar izan nuen.

### TEST-A

**Herria:** Eibar. **Adina:** 35 urte. **Ikasketak:** Kazetaritza. **Zaletasunak:** Zinema, Internet eta bidaiatzea. **Zer amets bete duzu?** Momentuz zoriontsua izatea. **Eta zer amets daukazu betetzeko?** Zoriontsu izaten jarraitzea. **Nora egingo zenuke bidaia bat?** Zeelanda Berria eta Australia aldera. **Disko bat?** Extremoduroren *Deltoya* edo Hertzainak-en *Eh Txo!* **Eibarrera bizi izatera bueltatuko zara?** Algorta oso ondo dago eta Eibarretik gertu.



AURKEZLEA GOITBko albistegietan proba egingo luke Ramosek. IKER BARANDIARAN

## ai, ene!



### Ez du ondo kalkulatu

Granadako kale batean jasotako argazkia da irudikoa: udaltzainak kale estu batean ez aurrera ez atzera geratu den auto bat atera nahian. Halako toki batetik autoarekin sartzea bururatzea ere! Hori bai ausardia!

http://www.sarda.es

## biharamuna

Juan Kruz Mendizabal

### Zer esan?

Gaur larunbata da eta istripu batean hil den 24 urteko neska baten hileta ospatu behar dut. Ez dakit zer esan eta, beharbada, hobe da isilik egotea sufritzen ari diren familiakoen artean. Baina, era berean, ez da nire lana isilik daudenen artean isilik egotea. Nola piztu animoa eta esperantza, itxuraz dena itzali denean? Zer esan hileta bateko ospakizunean, laurehun bat pertsona zuk zer esango zain dituzunean? Batzuk esango digute isilik ez egoteko ordaintzen digutela, zentzurik gabe hitz jarioa duen pareko. Baina hauxe da kontua: dena itzaltzen denean, heriotzak etxeko atera deitzen duenean, ezer gutxiri zentzua hartzen diogunean, esperantzaren ortzia ikusteko gai ez garenean, zerbaiten zain geratzen gara, neurriz eta errespetuz esandako hitzen zain jartzen gara. Hitz desberdin baten zain jartzen gara, guretzat egia eta geure izatea eusten duen Hitza iragarriz. Hitzen neurria hurbiltasunak ematen du, norberak pairatzen duen sufrimendua besteari pasa ezin daitekeela jakinik. Errespetuaren neurria esan behar diren hitzak esatean dagoela eta hobe dela motz geratzea pasatzea baino. Hauxe da, nik uste, daukagun irakasgai borobila: bestearen egoerarekin bat egiten ikastea. Gaur eguerdian ere ezkontza bat izango dut: badakit zer esan. Gaur arratsaldeko hiletan, zer esan?



## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +11 | +8 |

Eguraldiak antzera jarraituko du aste honetan. Euria egingo du ia egunero. Tenperaturak behera egingo du bihar eta etzi.

www.euskalmet.net





Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) I KODEA

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) I AITORMENA
Aizkolari (Kortatu) I AIZKO
Amore amore (Karidadeko benta) I AMORE
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) I ASKATA
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) I BEGIAK
Bi Minutuero (Hertzainak) I BIMINU
Dub manifest (Fermin Muguruza) I DUB
Egunero (Hertzainak) I EGUNERO
EH Sukarra (EH Sukarra) I SUKAR
Ellos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) I ELLOS
Enamorado de la muerte (RIP) I ENAMO
Entzuidazu (Aterking's) I ENTZU
Etorkizuna (Etsaiak) I ETORKI
Ezer ez da betiko (Ken7) I EZER
Gora Herria (Negu Gorriak) I GORA
Hator Bel-Air (Bide Ertzean) I BELAIR
Haizea (Ken7) I HAIZEA
Hegal egiten (Itoiz) I HEGAL
Ikusi (Delirium Tremens) I IKUSI
Ilargia (Ken 7) I KEN
Inpernuen ate joka (Gatibu) I INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) I JOKIN
Kaixo (Urtz) I KAIXO
Lau Teilatu (Itoiz) I ITOIZLAU
Laztana (Latzen) I LAZTA
Lotuta egon arren (Kokein) I LOTUTA
Loretxoa (EXKIXU) I LORE
Marea Gora (Itoiz) I MAREA
Musturrek sartunde (Gatibu) I MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) I NICA
No time for love(Hertzainak) I NOTIME
Salve (La Polla) I SALVE
Sarri Sarri (Kortatu) I SARRI
Sorginen leizean (Exkixu) I SORGIN
Txatxo (Zarama) I TXATX01
Txus (La Polla) I TXUS

Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maixa ta Ixiar) I BEXAMELA
Bokespok (Kepa Junkera) I BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tapia) I HIK
Itsas ontzi baten (Kaxiano) I ITSAS
Kupela (Epelde eta Larrañaga) I KUPELA
Mila galdera (Alaitz / Maider) I MILAI
Nirekin (Gozategi) I GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) I HIRA
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) I TXANPON

SOCIEDAD GENERAL DE AUTORES Y EDITORES

LOGOAK (SMS 1)
KODEA




OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.